

**K**... eta  
**Kitto!**

2020-III-6

1133 zkia.

# Tekniker nazioarteko erreferente tribologian

**2<sup>mó</sup>**  
graduatu erreflexuen  
aurkako lenteekin / **99€**  
(bat eguzkitakoa izan daiteke)



Gure betaurreko guztiak  
**bilduma berrietakoak dira**



Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22

**EIBAR**

**MULTIÓPTICAS**



[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)

# GIL LEHIAKETA DAR

VI. EDIZIOA



**MARTXOAK 11-12-13**



**BACOLEKU**  
Urkizu 11



**BAISI**  
Urkizu 11



**BOULEVARD**  
Bista Eder 5



**CHIC**  
Calbeton 9-11



**IPUR SAGAR DOTEGIA**  
Otaola 5



**ITURRI**  
Ibarkurutze 3



**O'JAYS**  
Untzaga 8



**ONGI ETORRI**  
T. Etxebarria 21



**ZELAI BIDE**  
Sostoatarren 4



**AGUIÑASPI**  
Urkizu 22



**ARKUPE**  
Isasi 2



**BARATZE**  
Bidebarrieta 39



**AMETSA**  
T. Etxebarria 2



**BACOLEKU**  
Ego Gain 4



**BIRJIÑAPE BERRIA**  
T. Etxebarria 16



**GURIDI**  
Untzaga 3



**DOS DE MAYO**  
T. Etxebarria 19



**JANTAEDAN**  
T. Anitua 20



**O'HARA**  
San Juan 19



**SKAPE**  
Urkizu 17



**SUBEROA**  
Bista Eder 11

## SARIAK

Epaimahaiak aukeratutako  
**GILDARi**  
150€

Herritarrek aukeratutako  
**GILDARi**  
150€

Bozkatu dutenen artean  
**ASTEBURUKO EGONALDIA** zozketatuko da  
BI LAGUNENTZAT.

**ANIMATU ZAITEZ ETA PARTE HARTU!!!**





Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzio@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkarte@etakitto.eus  
normalizazio@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA:**  
Idoia Labado

**TIRADA:** 8.150 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

## Goazen sagardotegira!

Eibarko AEK-k apirilaren 4an, zapatuan, Hernaniko Elorrabi sagardotegira etortzera gonbidatu nahi zaituzte. Anima zaitzete egun alai eta euskalduna elkarrekin pasatzera! Deitu 943 20 13 79 telefonora, edo idatzi eibar@aek.eus helbide elektronikora eta izena eman martxoaren 18a baino lehen. Egundorretarako plana hauze izango da: 11:00etan iritengo gara Untzagatik eta Hernanira 12:00ak aldeira iritsiko gara. 12:00etatik 13:30era poteo txiki baina alaia egingo dugu Hernaniko alde zaharrean eta,

ondoren, berriz autobusa hartuko dugu, sagardotegira joateko. 14:30etan hasiko da bazkaria Elorrabi sagardotegian. Eibarrera buelta 18:00etan egingo dugu. Sagardotegiko ohiko menua izango da: bakailao frijitua, bakailao tortila, txuleta, gazta... Txangoaren prezioa (autobusa + bazkaria) 50 eurokoa da. Ordainketa euskaltegiko bulegoan egin beharko duzue, martxoaren 23tik 27ra bitartean. Plazamugatuak dira. Animatu eta parte hartu!

Eibarko AEK euskaltegiko ikasleak

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MOTXAILLA.** - Ijitoa. "Lehen motxailla askok egitten eben euskeraz".

**MOTXAILLA KASTIA.** - Ijitoa adierazteko. "Karmen, zorigaiztokoa, Euskal Herriko motxailla kastia".

Gogorra, zaila. "Intxaur motxailla-kastia".

## astean esanak

"Itzultzaile neuronalaren inguruan, bada kontuan hartzeko gauza bat. Gehiena gaztelaniatik euskarara itzultzen da eta, beraz, makinari elikatzeke ematen zaion testu kopuru handiena gaztelaniarengatik, gaztelaniaren ordaina eskatu eta euskaraz jaso dugun testu zati hori oso litekeena da euskaraz sortua ez izana. Ez dago bi hizkuntzen arteko orekarik eta, adibidea gogora ekarrita, makinak erdarazko egiturari eutsiko dio. Erne ibili behar da teknologia berriek eskainitako abantailak kalterako ez izateko"

(ONINTZA IRURETA, KAZETARIA)

"Zezenketen inguruan ekin nion abenturari ez nion nik laga, nirekin amaitu zuten. Nik banuen adorea orain dela urte batzuk bezala jaialdiak antolatzen jarraitzeko, baina... Eibarren esaterako: plaza itxi zuten, udalak uste bultzatzen zuen proiektu faraonikoa aurkeztu zuten ondoren, eta hori hor geratu zen, ahaztuta. Plazak hor jarraitzen du, zutik, zezenetokia porlanezko metro batekin estalita... eta erdian farola bat duela, ez dakit, teniserako edo saskibaloiarako erabiltzen dena. Hori lursail horretako jabe zen familiak baldintza bakarra jarri zuela eremua ematerakoan, zezenketarako izatea. Azkenean baietz bota eta etxeak egin!"

(LUIS MARI LOPEZ, ZEZENKETA ENPRESARIA)

"Nire hurrengo liburua, 'Episodios de una guerra interminable' bildumako azkena, 1964ko Eibarren kokatuko dut neurri handi batean. Errelatoaren ardatza Espainia barneko herri askotan eman zen emigrazioak hartuko du, euskal industria helmuga izan zuen norabidea azaltzeko. Sasoi hartan jaio nintzen ni ere, eta badut lagun bat, Eibarren jaiotakoa bera, oinarritzko zertzeladak eman didana. Libururako buelta batzuk emango ditut bertatik, lagunaren amarekin; esan didatenez ez da gauza askorik geratzen orduko Eibartik. Gerratik zetorren Francoren aurkako oposizioa eta trantsizioa gidatu zutenak lotuko ditut"

(ALMUDENA GRANDES, IDAZLEA)

## Ufalek kalte mordua eragin dittue mendixan zein herri barruan

Azken egunotako haize bortitzak hainbat kalte eragin dittu Eibarren. Martitzenetik eguaztenera bittarteko gabian piñu mordua bota zittuan haiziak eta horretako batzuk Azittain eta Arrate arteko bidera erori ziran. Hori dala eta, Arratera igo edo bajatzerakuan, batek baiño gehiagok bidia moztuta topau eban. Mendixan ez eze, herri barruan be kalte eta gorabehera ugari eragin dittu haiziak: bestiak beste, Bittor Sarasketako aparkaleku aldamenian egitten dabizen obrako hesiak bota zittuan haiziak; hainbat tokittan teillak eta txapa zatixak erori dira, tarteka kaliak moztuta egotia eraginda eta telebista antenaren bat be bota dabe ufalek; saihebidian be, Jardiñeta eta Legarre arteko bi tunelen parian, galtzadan bueltaka ibilli ziran estalki solte batzuk; eta Itzio ikastetxeko sarreran eta Ipurua basarrira sartzeko baso-pistan be arbolak erori ziran.




## 21 tabernak hartuko dabe parte eguaztenian hasiko dan Gilda Lehiaketan

Danera 21 tabernak emon dabe izena datorren astian, eguazten, eguen eta barixakuan ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egingo dan Gilda Lehiaketan parte hartzeko: Aguiñaspi, Ametsa, Arkupe, Bacoleku (Ego Gain), Bacoleku (Urkizu), Baisi, Baratze, Birjiñape Berria, Boulevard, Chic, Dos de Mayo, Guridi, Ipur sagardotegia, Iturri, Jantaedan, O'Hara, O'Jays, Ongi Etorri, Skape, Suberoa eta Zelai Bide.

"Euskeraz Primeran!" egitasmuaren barruan antolatutako seigarren ediziñua izango da aurtengua eta oinguan be epai-mahaikidiak sukaldaritzan

adituak diran Mireia Alonso, Ruben Etxaniz eta Josu Mugerza izango dira. Eurak aukeratzen daben irabazliari 150 euroko sarixa emongo detse eta, horrekin batera, publikuaren sarixa be banatuko dabe antolatzailliak. Horretarako kutxa ipiñi dabe eta, botua emon ez eze, bezeruak be sarixa irabazteko aukeria eukiko dabe, parte hartzen daben guztien artian asteburuko egonaldixa bi lagunendako zozketatuko dabe-eta.



### Toribio Etxebarriari buruzko liburu barrixa

Kutxa Fundaziñokuak martitzenian aurkeztu eben "Un eibarrés extraordinario: Toribio Echevarría (1887-1968)" liburu Portalean. Fundaziñokuak Gipuzkoako historia berreskuratzen egindako ibilbide luziaren 67. argitalpena dan lan horren egillia Pedro Berriochoa urretxuarra da eta, diñuanez, liburu "gizon harrigarri baten irudixari egindako hurbilketia da" eta, "gehixenetan, Toribiok berak bere liburuen eta korrespondentziaren bidez erakutsi ebana biltzen dau".

Jao Wing Tsun 羊 和 和 羊 Jao Wing Tsun

Helduentzat eta 10 urtetik gorakoentzat  
**Defentsa pertsonalerako KLASEAK**

Armeria Eskolan  
658 738 910

**Radio Eibar**

CADENA SER

**104,0 FM**

**Teadi**

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

## Hillaren 13an eta 14an egingo dabez urteroko batzarrak Armerixakuak

Martxuan egingo dabe Batzar Nagusixa Armerixa Eskolakuak, urteroko mar-txan. Iaz egindakua bidetik, aurtan be bi ekitalditan banatuko dabe: Batzar Na-gusiña barixakua (hillak 13an) egingo dabe eta zapatuan (hillak 14an), barriz, ikas-le ohiak alkartzeko ekitaldi ludikua preparau dabe, eguna jai-giruan emoteko. Lehen eguneko Batzar Orokorrian nahi daben guztiak hartu leikie parte. Goizeko 11:30xetan hasiko dan ekitaldixan parte hartuko dabenen artian Fernando Romay saskiba-loi-jokalari ohia egongo da, "El valor de la diferencia" hitzaldixa emoten (13:00ak



aldera). Eta ekitaldixa itxeko, bar-riz, Jon Gurrutxaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Internazionalizaziño Zuzendaria gonbidatu dabe. Azaldu dabenez, "jardunaldixak, Networking-era-ko espazio batekin segiduko dau eta pentsatzen dogu enpresak al-karri eragitteko aukera interesan-tia izan leikiala, luntxarekin dis-trututzen daben bittartian".

Eta hurrengo egunian ekitaldi informalagua egingo dabe: ikas-le izandakuak eskura dittuen zer-bitzuak aurkeztiaz gain, eskolan bisita gidatua egingo dabe eta in-signiak eta diplomak banatuko detsez 1970eko eta 1995eko promozioñokueri. Amaitzeko, baz-karixa egingo dabe Chalcha jate-txian. Izena emoteko edo infor-maziua eskatzeko 943 20 32 44 telefonora deittu leike edo, bes-tela, elkarte@armeriaeskola.eus helbidera idatzi.

## autuan



### POSTA BIDEZKO BOTUARENDAKO ARRETA BATZOKIXAN ETA BILGUNIAN

Beti bezala, apirillaren 5ian izango diran Eusko Legebiltzarrerako hauteskundietan botua posta bidez emon leikiala gogorarazi dabe Eibarko Uri Buru Batzarrekuak. Asmo horrekin, Batzokixan astelehenetik barixakura bittartian hartuko dabe jendia, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Bestalde, hautetsontzira juateko ezintasunen bat dakenak botua notario batekin egitteko aukeria dakala ekarri dabe gogora. Arduradunekin kontaktuan ipintzeko 943 12 06 16 telefonora deittu, eajpnveibar@gmail.com helbidera idatzi edo zuzenian bulegora (Ego Gain, 1-1D) jua leike.

Eta asmo horrekin be zabalduko dabe Bilgunia (Bista Eder, 2) Eibarko EH Bildukuak. Bozka bidezko botuaren inguruan informaziñua nahi dabenak edo bestelako zalantzak argitzia bihar izanez gero, bertara jua leike astelehen, martitzen eta egugetan, 17:30xetatik 19:00etara, eta eguazten eta barixakuetan, barriz, 11:00etatik 13:00etara.



**Funeraria-Ehortzetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	




**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreak / 1. solairua**  
 ☎ **943 12 02 00 – 943 12 02 04**

- Análisi Klinikoak	- Kirurgia (aurpegi-masaila)
- Barne Medikuntza	- Kirurgia baskularra
- Dermatologia	- Koloproktologia
- Dietetika / Nutrizioa	- Neurofisiologia
- Erizaintza	- Ortodontzia
- Familia medikua	- Otorrinolaringologia
- Fisioterapia	- Psikologia
- Foto-depilazio Unitatea	- Radiologia
- Kardiologia	- Traumatologia
- Kirurgia	- Urologia

**TUTULUMENDI**



**IDURRE IRIONDO**



## Bihargin gitxiago eukitta be, beste pisu bat zabaltzia erabagi dabe Egogaiñen

Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak itxialdixa egin eben astelehenian, agintarixak bihargin gitxiago egonda be beste solairu bat zabaltzia erabagi dabela eta, protesta egitteko. Egogaiñeko bihargiñak bi urte baiño gehiago daroiate burrukan, euren lan baldintzen eta nagusixen eskubidien alde eta, arduradunak hartu daben azken erabagixa ikusitta, "Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrera inposatzaillia eta bihargin zein egoiliarrekiko erakutsi daben mespretxua salatze" egin eben ekimena. Bihargiñak diñuezen, "Egogaiñeko bihargiñak ez gara ixilik egon ixa bi urte beteko dittuan borrokaldi luze honetan, ezta gitxiago be! Bai, ordea, bi delagunak galdu, egoeriak derrigortuta 18 lankidek alde egin bihar izan dabe eta".

## Eguraldixa lagun izan eben Zuhaitz Eguneko landaketia egitteko

Zuhaitz Eguna ospatu eben domekan, Udaleko Ingurumen saillak, Klub Deportiboko Mendi Taldiarekin alkarlanian antolatutako zuhaitz landaketia eginda. Eguraldixa lagun, famelixa asko animatu ziran Iturburu ikastola parian zuhaitzak landatzeko preparau eben planarekin bat egittera: bertoko 40 zuhaitz (5 lizar, 15 gorosti, 10 haritz eta 10 pago) landatu zittuen guztira eta, horrekin batera, ingurumenari buruzko taillarra be egin zan (argazki albuma ikusteko, sartu etakitto.eus/mediateka helbidian).



## PAKITA ETXANIZ ELORZA

(2020ko otsailaren 25ean hil zen)

**“Zenbat tertuli eta zenbat une goxo. Izan ondo eta eraman gure esker ona”**

Senideen izenean, **ESKERRIK ASKO** hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

**ETXEKOAK**



## Zaporeak-Lesbos proiektuarendako lenteja eta arroz bilketia hillaren 16xan hasiko da

laz lortutakua gainditzeko asmuarekin, aurten be euren burueri erronka ipiñi detse Ermuko Jesus Gonzalez eta Eibar-ko Mireia Alonso sukaldarixak, herri bixetako beste sukaldari batzuekin batera, eta Grezian, Lesbosen errefuxiauta dagaizenendako lentejak eta arroza bilduko dittue. Aurrekuan bezala, Eibarren lenteja pardinak jasoko dittue eta Ermuan, barriz, arroza, ondoren Zaporeak taldeko boluntariuak Lesbosen errefuxiatueri jaten emoteko.

Bilketia martxuaren 16tik 21era bittartian egingo dabe, hainbat tokitan, eta Eibarko zein Ermuko Udalak be lagundu dabe, 1.000 kilo lenteja eta beste horrenbeste kilo arroz emonda: Eibarko jubilau etxe guztietan, ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuartian) eta As Burgas Galiziako Etxian, bestiak beste. Horrekin batera, martxuaren 17xan, 11:00-etatik 12:00xetara, Untzagako jubilau etxeko perkusiño taldekuak emanaldixa eskinduko dabe eta, bide batez, lentejak jasoko dittue, jubilau etxian bertan. Bestalde, Antzerki Jardunaldixak martxan da-



Eguaztenian egindako aurkezpenian laguntzaille eta babesle asko egon ziran antolatzailliekin batera.

guazela aprobetxauta, "martxuaren 20xan Coliseoko sarreran egongo gara. Eta martxuaren 21ian, Eibar eta Athletic taldeen arteko derbixa jokatu dala aprobetxauta, 12:00xetatik 15:00xetara Untzagan pintxo-pote solidarioa egingo dogu, herriko tabernari eta sukaldarixak duan prestauko deskuezen pintxuekin: euro batian salduko dittugu eta horrerri esker lortzen dogun diru guztia proiektuarendako izango da. Gaiñera, Artile dendakuak eta beste artisaubatzuk egindako gauzak be ipiñiko dittugu salgai, nik lentejak preparauko dittut, Jesusek arroza... Benetan be esker tzekua da alkarte, enpresa eta norbanakuak proiektuari eskintzen detsen laguntasun eta babes".

Zaporeak Solidario Garapenerako Elkartek 2.000 otordu preparatzen dittu

egunero eta janari hori Lesboseko errefuxiauen artian banatzen dabe, baiña azken astiotan asko okertu da berez latzazan egoeria eta janarixa banatu ahal izateko arazo haundixak dittue, domekan bertan eskuin-muturreko talde batek boluntario dabizeneri eraso egin zetsen eta. Eguazteneko aurkezpenian egon zan Zaporeak-eko kide baten berbetan, "gure bizitza arriskuan ikusi genduan benetan be. Greziako poliziakuak parian egonda be, horrelakuen aurrian ez dabe ezer egitzen. Aste honetan bertan telebisiñuetan emon dittuen irudixak erakusten daben moduan, poliziak berak erasotzen dittu kostara ailllegatzeko ahalegiñetan dabizenak, oin dala pare bat egun ume txiki bat hil zan, ittota".

Gauzak holan egonda, eurendako eziñezkua da janarixa banatzia, "holako taldiak eraso egitteko zain dagoz eta. Halanda be, Gobernuz Kanpoko Erakunde asko hasi dira mogitzen eta espero dogu horren bittartez atzera be janarixa banatzeko moduan izatia, bestela han daguzen 20.000 lagunak hil egingo dira".

Lenteja eta arroza biltziarekin batera, baten batek ojaliak, konpresak, eskuak garbitzeko jaboia eta holako gauzak eruan nahi badittu, hórretxek be jasoko dittuela esan dabe, "han daguzenak ezer ez dake eta".



## IGNACIA MANZISIDOR URBIETA

Lan da lan, borrokatuz, beti egin duzu aurrera. Zure maitasuna eskaini eta zure besoetan babesturik egon gara. Eskerririk asko gure eredu izategatik. Betidanik eta betirako maiteko zaitugu.

ZURE FAMILIA



# Zorigaiztoari barre

Lianka Lengua Caracasen jaio eta hazi zen, Venezuelako hiriburuan. Hiru milioi biztanle inguru ditu Caracasek eta, Liankak dioen bezala, *“beste mundu bat da herrialdeko beste toki batzuekin alderatuz”*. Gelditzen ez den hiria da Caracas, *“kaotikoa”*, eta, Liankak dioenez, azken urteotan asko hasi da biolentzia eta delinkuentzia. *“Niri, adibidez, autobusean nindoala lau aldiz saiatu ziren lapurtzen hilabete batean”*. Umea zenean beste kontu bat zen bere ustez. *“Lasaiago bizi ginen, beldur barik, hemen bezala”*.

## Atzerrian bizitzeko bi saiakera

Liankak 2003. urtean egin zuen erbestean bizitzeko lehen ahalegina. *“Madrilera joan nintzen, baina ez zuen funtzionatu. Barzelonara gero, eta berdin. Frantziara joan nintzen azkenik, eta hor ere gaizki”*. Venezuelara bueltatu zen eta ez zuen inongo asmorik berriz ere Europara itzultzeko, baina 2018an bizitza aldatu zion berria jaso zuen. *“Minbizi diagnostikatu zidaten”*. Bilbon bizi zen ahizpak berehala etortzeko esan eta handik hamar egunetara hegazkinera igo zen. *“25 euro eta 80 dolar besterik ez nituen, baina Euskal Herrira iritsi nintzenean maitemindu egin nintzen. Orain inork ez dit hemendik aterako”*. Gaur egun Avilesean bizi den ahizpa bisitatzeko ere ez da joaten. *“Bera etorri dadila”*.

## Minbiziari aurre egiten

Jarrera positiboarekin egiten dio aurre minbiziari, baina borroka ez da oraindik amaitu. *“Minbizi hobera doa. 23 kimioterapia saio egin ditut eta minbiziak atzera egin duela ikusi zuten azken eskannerrean”*. Prozesu gogorra izan dela dio, baina bizitzen irakatsi diola. *“Aktiboa izaten saiatzen naiz, bideak merezi izatea eta dibertigarria izan dadila. Bizitza modu ezberdinean ikusten dut orain”*. Senarraren babesa jasotzen du egunerokoan eta, teknologia lagun izan arren, Venezuelan bizi diren familiarren eta lagunnen falta igartzen du. *“Nire txakurrak ere han daude eta euren maitasunaren hutsunea sumatzen dut. Horregatik, kalean topo egiten ditudan txakurri laztanak ematen dizkiet”, dio barrez.*

## Sukalde kontuak

Irakurtzea asko gustatu zaio txikitatik. *“Zientzia fikzioa, biologia... neska bitxia nintzen. Piztiei ez diet batere beldurrik”*. Animaliak asko gustatu arren, hizkuntzen in-



Euskal Herrira iritsi bezain pronto tokiarekin maitemindu zen. **Ekhi Belar**

guruko ikasketak egin zituen, baina ezin izan zituen ikasketak amaitu. *“20 urterekin auto istripua izan nuen eta ama hil zen. Luzaro egon behar izan nintzen ospitalean eta sendatu nintzenean, ama ez zegoenez, dirua irabazteko zerbait egiteko beharra nuen”*. Sukaldaritza ikasketak egin zituen eta sukaldari lanetan ibili da ordutik. *“Hotel handietako jatetxeetan, okindegietan, gozogintzan... egin dut beharra”*. Sukalde kontuak gustoko izanik, paradisia aurkitu du Euskal Herrian. Askok gustatzen zaizkio hemengo jaki eta platerak. *“Munduko tomate onenak hemen jan ditut eta piperberdeak zoragarriak dira”*. Hala ere, Venezuelako gazta freskoaren falta igartzen du. *“Hemengo ez da gauza bera eta han gauza askotarako erabiltzen dugu gazta”*.

## Euskal kulturaren maitale

Hizkuntzak ikasteko erraztasuna du Liankak eta euskerarekin hasi da. *“Berba batzuk eta esaldien egitura nolakoa den ikasi dut”*. Euskerarekin eta euskal kulturarekin liluratuta dago, eta Euskal Herrian bi urte baino gutxiago eraman

arren, bere egin ditu hemengo ohitura batzuk. *“Bikaina da zaharrak diren hizkuntza eta ohiturak berreskuratu eta eustea”*. Lianka Eibar eta Euskal Herriko enbaxadore izan daiteke Venezuelan, lagun guztiak Eibarreara gonbidatu dituelako. *“Azken finean, Venezuela eta Euskal Herriaren artean lotura handia dago”*.

**“No hay viento favorable para quien no sabe dónde va”**

**“Ez dago aldeko haizerik nora doan ez dakienarentzat”**



# Zaldibar Argitu plataformak lan-uztea deitu du eguenerako, 12:00etatik 15:00etara

**G**aur hilabetea betetzen da Zaldibarraren zabortegia hondoratu eta milakaton hondakinen azpian bi behargin, Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze desagertarazi eta lurperatuta geratu zirenetik. Harrezkero hamaika mobilizazio egin dira Eitzaga inguruko herrietan, tartean Eibarren, desagertutako bi beharginak lehenbailehen erreskatatzea eta Zaldibarren zer gertatu den argitzea eskatzeko. Baina ezbeharra gertatu zenetik hilabete oso bat igaro arren, bi eskaera horiek erantzun barik jarraitzen dute eta, hori ikusita, datorren asterako lan-uztea deitzea erabaki du Zaldibar Argitu herri-plataformak, atzo arratsaldean Eitzagan emandako prentsaurrekoan jakinarazi zutenez: hiru orduko lan-uztea izango da, martxoaren 12an (egunean), 12:00etatik 15:00etara bitartean eta plataformatik lan-uztearekin bat egitera deitu dituzte herritar guztiak, baita datozen egunotarako antolatutako mobilizazioetan parte hartzera ere.

Atzoko agerraldian esandakoaren arabera, "zabortegia erori zenetik hilabete pasatu den honetan, gauza gehiegik jarraitzen dute argitu gabe. Erakundeek normaltasun eta egonkortasun irudia eman nahi badute ere, ezin dugu ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatu, oso larria izan da gertatu dena eta oso larria izaten jarraitzen du. Hasteko, langileak oraindik desagertuta daude. Eman diren azalpen teknikoak oso mugatuak izan dira eta herritarren kezka nagusiei ez zaie erantzun. Erantzukizun politikorik ere inork ez du hartu eta hori onartezina da gaur egungo gizartean. Higiene demokratiko hutsagatik, dimisioak mahai gainean jarri behar dituzte eta Verter enpresaren auzian egon diren praktika irregular guztiak zehatz-mehatz argitu, informazio publiko eta gar-denaren bitartez".



Hondamendia gertatu zela hilabete igaro dela gogoratzeko lore-eskaintza egingo da gaur 18:00etan Eitzagan.

## Hurrengo mobilizazio eta ekimenak

- **Gaur (barixakua, martxoak 6)**, lore-eskaintza egingo da Eitzagan, 18:00etan (deialdia herritar guztiei zabalik egin da).
- Horrez gain, **gaur (19:00etatik 21:00etara) eta bihar (12:00etatik 14:00etara)** plataformak balkoietan ipintzeko egin dituen banderolak saltzen egingo dira Untzagan (Guridi inguruan).
- **Martitzenean (martxoak 10)** bilera irekia 18:00etan hasiko da, Arrate Kultur Elkartean. Ipuruan Eibar eta Real taldeen arteko partiduaren aurretik, 19:30ean, kontzentrazioa egingo da Xania taberna parean.
- **Eta egunean (martxoak 12)** lan-uztea, 12:00etatik 15:00etara. Eibarko mobilizazioa 12:30ean izango da (Untzagatik) eta 18:00etan mobilizazio bateratua egingo da, Eibar eta Ermua arteko biribilgunetik hasita.

Gauzak horrela, martxoaren 12ko lan-uztea deitzeko arrazoiak eman zituzten atzoko agerraldian: "Gure eskakizunak mahai gainean jartzeko eta erreala ez den normaltasuna eteteko, dei egiten diegu Zaldibar, Eibar, Ermua, Elgeta eta Mallabiko herritarrei martxoaren 12an paro herritarra egitera, eguerdiko 12etatik 15etara bitartean. Nahikoa dela esateko guztia geldituko dugu. Behingoz erantzuleak mugitu daitezzen, guztia geldituko dugu. Goizeko 12:30ean mobilizazioak antolatuko dira inguruko herrietan, eta arratsaldeko 18:00etan mobilizazio bateratua egingo dugu Eibar eta Ermua arteko rotondatik abiatuta. Bertan parte-hartzera animatzen ditugu inguruko herritar guztiak, erakundeak mugiarazteko eta Zaldibarkoa errepikatu ez dadin neurri zehatzak hartzeko. Era berean, eragile sozial eta sindikal ezberdinei eskatzen diegu batu daitezela gure deira, indarrak batzea eskatzen baitu egoerak. Eta bukatzeko, gainontzeko herriak ere elkartasunez mobilizatzen animatzen ditugu, hondakinen kudeaketak denoi eragiten digulako".

Bidebarrieta, 5 943 201 547

**CAPI**

[www.capiestetica.es](http://www.capiestetica.es)

**ACCURETT**  
Zure orbanak  
betirako kentzeko



29€-tik  
aurrera

IR PHARM AESTHETICS

**TRATAMENDU BERRIAK**



"make up efecto piel"  
IRAUPEN LUZEKO  
TRATAMENDUA

Tonoa bateratzen du,  
azala fiabartu eta argituz



Hilabete igaro da Zaldibarko zabortegiko hondamendia gertatu zenetik, eta han jarraitzen dute, lurperatuta, Alberto Sololuzek eta Joaquin Beltranek. Zer gertatu da? Azterketa zehatza egin beharko da: zabortegiaren betetze maila, hondakinen konposizioa eta kokapena, lurren trinkotasuna... Gauzak horrela, argi dagoena da gizakiak gero eta eragin handiagoa duela ingurunean. Zaldibarren getatutakoaz eta Euskal Herrian sarritan gertatzen den lur-jausien fenomenoari buruz hitz egin dugu Agustin Larrea geologo eibartarrarekin. Larreak azaldu duenez, luiziei aurre egiteko lehenbiziko pausoa prebentzioa da.



*Sopelan bizi da Agustin Larrea. Hala ere, maiz etortzen da Eibarrera. 35 urte daramatza ikerketa geoteknikoak egiten bai Euskal Herrian bai kanpoan.*

## AGUSTIN LARREA (geologoa):

# “Zaldibarko zabortegian printzipioz ez dira arazo naturalak gertatu”

**- Zein da geologoena lana? Nolako esparrutan jarduten duzue?**

2001. urteko errege dekretuak 40 lan mota ezberdin zehazten ditu, eta horietatik garrantzitsuenak, nire ustez, geoteknia, lur kutsatuen ikerketa, hidrogeologia, mineria eta petrolioa, ingurugiroa eta geoteknia ikerketak dira.

**- Egun hauetan asko hitz egin da geoteknia ikerketei buruz. Zergatik dira hain garrantzitsuak?**

Geotekniak lurrazaleko materialen konposizioa eta ezaugarriak aztertzen ditu. Metodo zientifikoak aplikatzen dira lurra- ren portaera eta prozesu ezberdinak iragartzeko, eta garapenerako egokia izan dadin. Hau izan ahal da lur-azal naturalean edo obra bat egiterakoan (etxebizitzak, presak, errepideak, trenbideak, urbanizazioak, zubiak, betelanak,...). Zein arazo egon daitezkeen aurreikusten da eta irtenbideak ematen dira.

**- Zer gertatu da Zaldibarko zabortegian? Zergatik erori da?**

Zaldibarren zerbait txarto egin da. Agerikoa dirudi hondakinak erori direla. Ez dago, printzipioz, arazo naturalik. Ez dago lur-jausirik, ez zabortegiko goiko aldean ez behekoan. Zabortegia eraiki aurretik ikerketa geoteknikoak egiten dira arazoak azaltzeko edo konpontzeko, eta legedia oso zorrotza da. Hori horrela izanik, hondakinak aztertu behar dira. Hondakinak “no peligrosos” bezala sailkatuta daude. Niretzat ez da oso izen

egokia, baina... Zabortegietan, orokorki, hondakinak lurrarekin kontaktuan ipini ondoren eduki ditzaketen erreakzio fisiko edo kimikoen arabera sailatzen dira. Batzuk geldoak (inerte) dira, adibidez lur edo harrien indusketak. Beste batzuk arriskutsuak dira, esate baterako etxeko hondakinak, ospitalekoak edo hainbat industria arriskutsuetakoak. Eta, azkenik, erdian gelditzen dira “no peligroso” ospetsuak, hau da, aldaketa fisiko eta kimikoak izan arren hain garrantzitsuak ez direnak. Eta hau da Zaldibarko zabortegiaren kasua. Eta zer sartzen da hondakin hauetan? Gauza asko eta oso desberdinak: material ia likidoak, lohiak edo lokatzak bezala; eta material solidoak. Hau ere legediak garbi jasotzen du. Proiektua egiten denean malda batzuk markatzen dira, teoriarik egonkorak. Zabortegia betetzen den bitartean hondakin guztiak zertifikatuta egon behar dira, trazabilitatea izan behar dute, non sortu diren, eta zenbat sartzen diren, hau ere

“Zabortegietan maldaren egonkortasuna hondakinen kokapenaren menpe gelditzen da”

“Lur-jausiak, luiziak, harri-jausiak... euriarekin lotura ikaragarria dute”

legediak ondo zehaztuta. Baina hemen hasten da arazoa: hondakin hori zabortegiko zein tokitan ipintzen da? Ez da gauza bera malda ondoan lohiak edo material solidoak jartzea. Beraz, maldaren egonkortasuna hondakinen kokapenaren menpe gelditzen da.

#### **- Nolako eragina izan dute azaroan izandako euriteek?**

Legediak eskatzen du gutxienez urtean behin txostenak egitea, eta hor sartzen da, besteak beste, egonkortasunaren gaia. Hau legediak zabortegiaren menpe uzten du. Alde horretatik jarraipen geotekniko hobea behar da, materialen kokapena markatuz eta jarraipen topografiko zuzenagoa eta azterketa geotekniko zorrotzagoa eginez. Zergatik? Euriteek, esate baterako, asko alda dezaketelako egonkortasuna. Lur-jausiek, luiziek, harri-jausiek... euriarekin lotura ikaragarria dute. Azaroan izandako euriteak neurtu dituztenetatik handienak izan dira. Beraz, erlazioa izango du, ziur. Gainera, euria zabortegiaren azalera jausten denean, hondakinaren iragazkortasunaren arabera (ura pasatzeko ahalmena) zama bat gelditu daiteke goian. Edo erdian gelditu daiteke (adibidez, lohiek eta plastikoek ez dute ura pasatzen lagatzen). Beste hondakin iragazkorragoek ura barneratzen dute eta zabortegiaren saturatzea eragiten du (adibidez hare hondakinek). Zabortegia baina handi bat bezalakoa da eta azpian lamina iragazgaitz bat dauka. Gauza biak oso txarrak dira, eta, jakina, neurtu beharko lirakekeenak.

#### **- Zabortegietan ohikoak dira suteak. Zergatik gertatzen dira eta nola kontrolatu daitezke?**

Hondakinek materia organikoa baldin badute (paperak, kartoiak edo hondakin begetalak) deskonposaketa prozesuan metanoa sortzen dute, eta hau oso erraz pizten da (txinpartak, asentamentuak direla...). Sua edo metanoa erretzea ez da berez arrisku-tsua, baina suak beste material mota batzuk erretzen baditu, orduan hasten dira arazoak. Sua estaltzeko ezinbestekoa da oxigenoa ez heltzea. Oxigenorik gabe ez dago su terik eta oxigenoa atmosferan dago. Beraz, lurrarekin edo beste zerbaitekin estali behar da, inoiz ez urarekin. Oso zaila da sua amatatzea, bertaraino heldu behar da horretarako, eta lurra oso mugikorra da.

#### **- Lur-jausi berriak egoteko arriskua da-goela uste duzu?**

Zabortegia apurtu aurretik hondakinak konpaktatuta zeuden eta malda bat zegoen. Erori ondoren bi fenomeno gertatu



dira: eroritako zatia oso ahula dago (autobidera heldutakoa, adibidez), eta erori ez den zatian, nahiz eta konpaktatuta egon, erorketak malda berri bat egin du, plano ezegonkorra, eta honek hasierako maldak baino aldapa handiagoa dauka. Zati biak oso ezegonkorak dira. Hori bai, zabortegia erori den tokia ezegonkorrena zen. Beraz, nahiz eta arriskuak jarraitu, hauek gutxitzea espero da.

#### **- Eibartarra izanik, ondo ezagutzen duzue gure herria. Geologo baten ikuspegitik nolakoa da Eibar?**

Lehendabizi oso erliebe aldapatsua dugu eta hori kaltegarria da. Geoteknikoek hiru gauza hartzen ditugu kontuan. Lehenengoa, lurrak edo buztinak. Gure kasuan nahiko eskasak dira: zulo bat eginez gero berehala arroka topatuko dugu. Baina pentsa dezagun metro kubiko batek 2.000 kilo pisatzen duela. Beraz, kontuz! Beste aspektu bat kontuan hartu beharrekoa arroka da. Eibarren bi motatako arroka ditugu: sedimentarioak, hauek lajak edo betak dituzte eta, malda eta plano horien arabera, egonkorak edo ezegonkorak izan daitezke, eta, bestetik, arroka bolkanikoa daukagu; Arratetik Maltzagara heltzen dira hauek, ez dute planorik, baina kaotikoagoak dira: arribolak, finagoak.... Gainera arroka horiek

agente atmosferikoekin eraldatzen dira eta denborarekin arazoak sortu ahal dira. Hirugarren aspektua betelanak dira: hemen zabortegi eta eskonbrera asko ditugu. Zabortegia Azitainen, eskonbrera Ipurua foball zelaiaren azpian, eta betelanak edozein errepidetan (maldetan mendiari zati bat jaten diogu eta bestaldean betelana sortzen dugu).

#### **- Luiziei aurre egiteko, prebentzio mailan lan gehiago egitea beharrezkoa ikusten duzu, beraz?**

Eibarko udalak Azitainen estabilizazio obrak egin behar ditu laster 350.000€ inguruko kostuarekin. Eibarren gutxienez 50 lur edo arroka-erorketa zenbatuta daude, azkenekoa Errekatxu eta Txonta inguruan. Espainiako geologia eta meatzaritza institutuaren arabera, 1986-2016 aldirako irristatzeen ondorioz estatuan aurreikusitako kalteengatik galerak 4.500 milioi euro baino gehiagotan balioztatu dira. Eibarri dagokionean, esandako guztia ondo argia da: prebentzioa. Arrisku mapak egitea gomendatuko nuke. Badaude uholde-arriskuen mapak, lur kutsatuen mapak, baina ez egonkortasun mapak. Mapa horiek kontutan eduki beharko lituzkete malda naturalak eta baita malda horien orde egiten diren hormak, ankalaiak, eskolera... Ermuan esate baterako, urtero aztertzen dira gauza hauek. Davor Simic geoteknikoak esaten duen bezala, "ikerketa geoteknikoak beti ordaintzen dira, batzuk obrak hasi aurretik eta beste batzuk obrak egiten ari direnean. Kasu horretan, lur-azalean sorpresaren bat ateratzen denean egiten dira eta askoz ere garestiagoak dira".

"Luiziei aurre egiteko, Eibarren prebentzioa, arrisku mapak egitea gomendatuko nuke"



asier ezenarro

Bada ingurugiroak bost axola diona, beti alkate eta agintari usteleki botoa ematen diona. Olatuak euren etxeak harrapatuta ere, kezka ekologikorik ez zaie sumatzen

## Haurtzaroan entzundako galderak

**80. hamarkadako erdialdean etxean nengoen telebista ikusten amamarekin.** Umetan, marrazki bizidunak aparte, gustokoak nituen animalien dokumentalak: Asiako oihanak, Himalayako mendiak edo Kanadako basoak imaginazioa suspertzen zidaten. Arratsalde horretan Antartikako lurralde izoztuak ikusten geunden eta, bapatean, amamak galdera bota zuen: *‘¿Eta izotz guzti horiek urtuko balira?’*. Lehenengo aldiz kezka ekologista sortzen da nigan. Egia esateko, ez da kezka ekologikoa bakarrik; hobeto esanda, beldurra ere bada. Urtebete edo bi geroago La Salleko ikastetxetik Amañako zinemara eramango gaituzte sasoi hartan arrakasta zuen filme ederra ikustera: John Boorman zuzendariaren *La Selva Esmeralda*. Han ikusiko dugu nola hondatzen duten oihana eta nola hiltzen dituzten bertan bizi diren herriak. Zinematik kezkatuta ir-tengo naiz. Ez da oraindik kezka ekologikoa barnean dudana, baina ezta bakarrik norberekeri hutsa ere. Beste amamari ikusi dudana pelikula kontatuko diot eta hurrengo hilabeteak Atlas zahar batekin pasatuko ditut arratsalde asko Hegoamerikako eta Ama-

zoniako mapak ikuskatzen. Gogoratzen dut ere amamaren galde-ra: *‘Zer pasatuko da oihan guztiak desagertzen badira?’*.

Gogoratzen ditut ondo ere garai hartako mugimendu eta ekintza ekologistak: Debarako martxa antinuklearra Euskal Herrian edo ekologisten protestak Mediterraneoko kostaldean gertatzen ari zen desagitearekin.

Urteak pasatu dira eta, dirudienez, Mediterraneoko leku batzuetan ura leporaino izan dute azken uholdeetan. Negargarria da ikus-tea hainbeste kaltetu, hainbeste denda eta komertzio txiki dese-ginda eta lokatzez beteta. Elkartasuna behar dute askok halako egoeretan eta horretarako izan behar dira ere administrazioak. Baina beste hiritar mota bati buruz ere hitz egin behar dugu: in-gurugiroak bost axola dionari buruz. Betidanik “pisito a pie de pla-ya” nahi izan duena bakarrik eta, behin eta berriro, alkate eta agin-tari usteleki bere botoa ematen dietena. Orain olatuak euren etxe-en leihotara iristen dira eta, hala ere, kezka ekologikoa inondik inora ez zaie sumatzen.



iraiá muñoz

Gizonetan aztertu diren gaixotasun edo tratamenduek emakumeetan eragiten dituzten albo kalteak ez dira kontuan hartzen, osasunean desparekotasuna sortuz

## Emakumeen ikusezintasuna

**Ezagutzen duzue Yentl filma? Pelikula hori XX. mendearen hasieran dago kokatua,** non goi mailako ikasketen aukera oraindik ez zen emakumeetan onartzen. Beraz, Yentl, emakume protagonista, gizonaz mozorrotzen da ikasi ahal izateko. Zorionez horrelako oztopoak garaitu ditugu gaur egun. Hala ere, badaude beste asko oraindik ere eraitsi beharrekoak.

Filmaren izenean oinarritua, badago medikuntzan orain dela urte gutxitatik “Yentl sindromea” bezala ezagutzen dena, hau da, ikerketa medikoaren genero-arrakala. Atzera begira, ikerketa mediko eta entsegu klinikoetan emakumeen partehartzea baztertu egi-ten zen, haurdunaldian eragina izan zezaketela azalduz edo hilek-koa eta aldaketa hormonalek espermentazioko emaitzak asaldatzen zituztela argudiatuz. Ondorioz, gizona ikerketa klinikorako eredu egokiagoa kontsideratu izan da eta farmako ugari gizon-ekoetan bakarrik frogatu izan dira. Pentsa dezakezue, gizon eta emakumeak orokorrean antzekoak garelako eta jasaten ditugun gai-

xotasunak berdintsuak izaten direla, ezta? Orduan, non dago arazo-a? Ba hortxe dago koxka, zehaztasunean aztertuta desberdintasun ugari ditugu, adibidez, organo, metabolismo, funtzio biolo-giko eta maila hormonalean. Horregatik, gaixotasun, tratamendu edo produktu kimikoek era desberdin batean eragin dezakete bi sexuetan. Hori dela eta, batez ere gizonetan aztertu diren gaixo-tasun edo tratamenduek emakumeetan sortzen dituzten sintoma asko ez dira egunerokotasunean identifikatzen, ezta hauen albo-kalteak kontuan izaten. Honen ondorioz, emakumeen osasu-nean desparekotasuna sortu da.

Arazaari izena jarri zitzaionetik komunitate mediko-zientifikoak aldaketa ugari burutu ditu, arlo honetan emakumeen ikusezintasuna murrizteko. Poliki-poliki badoa egoera aldatzen, askotan emakumeek beraiek burututako ikerketa ekintzen bidez. Jarraitu dezagun bada, ikerketa medikoa ere, genero ikuspe-gitik lantzen!

# Diskurtsoa eta antolakuntza, borrokan jarraitzeko

Martxoaren 8a kolore morez idazten da. Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna borrokarako, aldarrikapenerako eta mobilizatorako eguna da, 111 urtez emakumeen eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko eta eskubide horiek betetzea eskatzeko erabiltzen den eguna. Azken urteotan Eibarko, Euskal Herriko eta munduko hainbat tokitako kaleak morez jantzi dira, mugimendu feministaren mobilizazio gaitasun handiaren erakusle. Domeka borroka eguna izango da.

**E**makume Langilearen Nazioarteko Eguna irudi ikusgarriak utzi dizkigu azken urteotan. Eibarren aspaldi ikusi ez den jendetza irten da kalera eta emakumeek babes osoa eman diete azken bi urteotan deitutako greba egunei. Marea morea Euskal Herri guztira iritsi da, olatua hazten doa, eta gero eta indar handiagorekin eragiten du norbanakoetan eta, ondorioz, gizartean.

Eibarko Martxoaren 8ko Plataforma Feministak argi zuen aurten ez zutela greba deialdirik egingo. *"Iazko mobilizazioak amaitzean egin zuten hausnarketaren emaitza da"*, plataformakoen berbetan. Gainera, aurten martxoaren 8a domeka izateak hartutako erabakia berresten du. *"Baina beste alde batetik, domeka izanik, eguneko egitaraua antolatzeko aukera gehiago izan ditugu"*. Tresna arrakastatsua izan arren, uko egin diote greba deitzeari, baina horrek ez du esan nahi borrokan tinko jarraituko ez dutenik. Guztiz kontrakoa. *"Beste modu bateko planteamen-dua egin nahi genuen"*.

'Antolatatu indarrak, batu borroka feministara' izango da aurten erabiliko duten goiburua. *"Azken urteotan feminismoa asko sozializatu da. Horrek gauza positiboak ekarri ditu, baina diskurtsoa difuminatu egin da neurri handi batean. Iazko greban, adibidez, jendetza batu zen, baina maila diskurtsiboan edo guretzat oso oi-*

#antolatatu indarrak

**M8**  
martxoaren

EIBAR 2020

**U**  
**N**  
**T**  
**Z**  
**A**  
**G**  
**A**

9:00	ELKARGUNEAREN IREKIERA
11:00	MINTZODROMOA
13:00	EMAKUMEA* DANTZARA!
ONDOKEN	POTEO GIROTUA
15:00	BAZKARI AUTOGESTIONATUA
16:30	BAZKALOSTE MUSIKATUA
18:00	MANIFA //mistoa//
AMAIERAN	EKITALDIA

narrizkoak diren gauza batzuetan ez dakigu zein puntutaraino zeuden presente hainbat aldarrikapen". Adibide bat jartze-arren, zera diote. *"Baten bat telebistan feminismoari buruz berbetan entzuten genuen, eta antolakuntza eta militante moduan ez gentozen bat esaten zuenarekin"*. Mugimendu feministaren diskurtsoa ber-ritz planteatzeko beharra ikusten dute. *"Zergatik? Zer gara? Zelan ulertzen dugu feminismoa? galderei erantzuteko"*. Edukietara itzultzeko sasoia dela diote. *"Jen-*

*de askok egin du bat feminismoarekin eta oso ondo dago, baina gauzak politizatze-ko eta masa-mugimendu bihurtu den horri irakurketa bat emateko sasoia heldu da. Hau da, Zarak ezin du kamiseta feminista bat egin eta hori ari da gertatzen. Beraz, mobilizazioetara goazenean modu kontzientean joatea da asmoa. Badakigu arlo guzti-guztietan koherentzia edukitzea zaila dela, baina kontziente izan behar gara guk aldarrikatzen duguna Zara eta horrelakoei ezetz esatea ere badela. Guk oi-har-*

*tzun gutxiago dugu. Gure mezua helarazten saiatzen garela eta botere gehiago dutenen mezua askoz indartsuagoa edo ozenagoa dela ikusi dugu. Guk eskuorriak eman ditzakegu, baina besteek presentzia handiagoa dute telebistan eta etengabe iristen zaizkigun mezuetan. Beraz, mugimendu feminista maila diskurtsiboan lan-tzen saiatuko gara”.*

### Hausnarketa, eztabaida eta kontzientzia

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak 3.000 emakume baino gehiago batu zituen Durangon 2019ko azaroan. ‘Salda badago’ goiburuarekin feminismoaren inguruan hausnartu zuten eta Eibarko Martxoaren 8ko Plataforma Feministarentzat baliagarriak izan dira handik atera ziren gogoeta eta ekarpenak. *“Feminismoaren diskurtsoan eragina izan dute han landutako gaiek eta mugimenduaren barrenak mugitu ditu. Azken finean, jardunaldiek salda badagoela erakutsi zuten”.* Eibarko Plataformakoen berbetan, *“maila diskurtsiboan eta buruari bueltak emateko”* ekarpenak eskaini zizkieten jardunaldiek, *“baina praktikan ez zuen aldaketa handirik ekarri”.*

Azken urteotan herrian jasotako babesa handia izan arren, plataforma osatzen duen lantaldean ez da aldaketa handirik izan, nahiz eta jende berria sartu den. *“Oinarriak mugitu egin dira. Ez da iraultza bat izan, baina ez gaude orain dela lau urte bezala. Kontzientzia maila asko aldatu da”.* Martxoaren 8aren ondoren martxoaren 9a dator, 10a gero, eta azken urteetako mobilizazio handiek plataforman eta herriko mugimendu feministan eragiteaz gain, gizar-tearen egunerokoan eragina izan du baita ere. *“Etxe askotan feminismoaren inguruko eztabaidak eta berriketaldiak sortu dira, eta emakume asko euren espazio intimotetan mugak jartzera animatu dira,*



*Jende ugari mobilizatu du Martxoaren 8ak azken urteotan.*

*adibide batzuk aipatzearren. Hau da, lehen egiten ez ziren hausnarketak eta eztabaidak sortu dira”.*

Urtarrilaren 30eko greba orokorrak aurtengo Martxoaren 8 Plataformaren lana baldintzatu du, *“horren ondoren hasi ginelako Martxoaren 8ko egitaraua prestatzen”*, baina greba eguna ez izateak prestateta-lana erraztu du. *“Aurreko urteetan greba deitu dugunez, gauza askoren inguruan hausnartu behar izan dugu, jendea informatzen saiatu, auzoetara heltzen ahalegindu eta beste mila gauza. Demaseko aurrelana egin behar izan genuen. Aurten, ordea, domekarako egitaraua prestatzeko lanetan ibili gara eta ez hainbeste egunaren zentzuaz hausnartzen”.* Aurreko urteetako ekintzen prestaketan lan handia egin behar izan arren, oso positiboa izan zela azpimarratzen dute. *“Gainera, jendearen erantzuna bikaina izan zen eta hausnarketarako aukerak eskaini zituen esparru askotan”.*

### Egun osoko egitaraua

Eibarko Martxoaren 8ko Plataformak Euskal Herriko Mugimendu Feministaren diskurtsoarekin bat egiten du, baina egitaraua antolatzeko orduan libre ibili dira, ekintzak Eibarko errealtatera egokituz.

Domekan lehen orduetik egingo dira ekintzak. 9:00etan, Elkargunearen irekiera egingo da Untzagan, *“erreferentziatzko toki bezala”*, eta egun osoan zehar egongo da zabalik. Gero, 11:00etan, mintzodromoari hasiera emango zaio. *“Feministatik lortu diren lorpenei buruz berba egitea, aurtengo goiburuak diogenarekin lortu ditzakegun gauzak azpimarratzea, eta aurrean ditugun erronkak zeintzuk diren ikusi eta horren inguruan hausnartzea da helburua”.* Parte-hartzaileak talde txikietan banatuko dira, parte hartzea sustatzeko. 13:00etan, ‘Emakumeak\* Dantzara!’ ekimena egingo da KAXAkoen eskutik. ‘Elkarrekin indartsuago gara’ da KAXAkoek erabili duten aldarrria eta aurretik entseguak egin dituzte dantzak prestatzeko. *“Emakumeon indarra erakustea da gure asmoa, modu errazean, gustora sentituko garen ingurunean. Artea emakumearen ahalduzko alde borrokatzeko tresna gisa erabiliko dugu”*, diote KAXAkoek. Ondoren, poteo girotua egingo da eta 15:00-etan bazkari autogestionatua Untzagako karpan. lazko bazkarian oso giro polita sortu zela diote eta 16:30ean hasiko den bazkaloste musikatuari bide eman-gio dio. *“Batzuek gitarra eramango dute, eta ikusiko dugu nolako giroa sortzen den eta jende gehiago animatzen den”.* 18:00etan mobilizazioa hasiko da Untzagan eta herriko kaleetan zehar entzungo



*“Hilekoa(k)” erakusketa zabalik dago Arrate Kultur Elkarteetan.*



Untzagan elkargunea zabalik egongo da etzi egun osoan zehar.



Grebarik ez, baina borroka eguna izango da domekakoa.

dira feministen aldarrikapenak. Azkenik, eguna borobiltzeko, ekitaldia egingo da Untzagan. Egitarau ez mistoa antolatu du plataformak eta horren inguruko azalpena eman nahi izan du, *“iaz gatazka iturri nagusietako bat izan zelako”*.

#### Hilekoaren tabua astindu

Emakume Langilearen Nazioarteko Egurnari begira antolatutako ekintzak ez dira domekara mugatzen. Ainhoa Aldazabalek eta Skolastikak domekan amaituko den ‘Hilekoa(k)’ erakusketa jarri zuten martxan Arrate Kultur Elkartearen otsailaren 27an. Hilekoa modu zientifikoan aztertzen duen Erika Iruستا pedagogo-menstrualaren eta Josune Muñoz Skolastikako kidearen ideietatik abiatuta, gaia bere alorrera ekarri du Aldazabalek, *“artera eta literatura”*, eta disziplina hauetan hilekoa nola adierazten den erakusten du.

Hogeita hamar lan inguru batzen ditu erakusketak, tartean Jone Olabari, Jone Bengoa eta Maialen Belaustegi eibartarren sorkuntzak daudelarik. Argazkiak, eskulturak, performanceak, ilustrazioak, zeramikak, komikiak eta bestelako arte-disziplinak daude ikusgai. *“Hilekoaren gaia esperientzia pertsonaletik abiatzen da, baina gai politikoa da eta kolektibitatea azpimarratu beharra dago”*, Aldazabalen ber-

betan. Zentzu horretan, artelan kolektibo bat sortzeko tailerra egin zuten aurretik, erakusketa osatzeko. *“Material ezberdinekin egindako collage antzeko bat da”*.

Lau dira erakusketaren helburuak. *“Baretetik, hilekoa kulturak zeharkatzen duen esperientzia dela erakustea eta tabua dela demostratzea. Bigarrenik, hilekoaren tabua astintzea eta ikusgarritasuna ematea. Hirugarrenik, artearen eta irudien bitartez hilekoaren inguruko diskurtso eta esperientzia antzak elkartzea. Eta azkenik, feminismoak proposatzen duen begirada ekarri eta gure buruak behatzeko tresnak eskaintzea, eta hausnarketarako gai eta bi-deak proposatzea”*.

Erakusketa hobeto ezagutzeko, Aldazabalek bisita gidatua eskaini zuen martitzenean eta, gaur, 21:00etan, Nerea Ibarzabal Salegi, Maite Berriozabal Berrizbeitia, Maider Arregi Markuleta eta Beñat Gaztelumendi Arandia bertsoariekin bertso-afaria egingo da Kultun.

#### Dantza, liburua eta erakusketa

Bertsotan egiteaz gain, dantzarako aukera ere egongo da gaur Neledantza kolektiboaren eskutik (lehenengo Ipuruako Dantza Garaikidea). ‘Feminismoa gorpuztu’ izenburuarekin dantza eta flashmobak egingo dituzte Untzagan, 18:00etatik au-

rrera. ‘Ni una más, ni una menos’ eta ‘Respect me’ abestiekin prestatu dituzte flashmobak eta dantzak ikasteko tutorialak YouTube-ra igo dituzte. Bestetik, Flashmoben aurretik, dantza ikuskizuna egingo dute Lide Agirre, Irene Vazquez, Saray Garcia eta Nere Lodosaren zuzendaritzapean.

Martxoaren 8aren harira antolatutako ekintzekin amaitzeko, ‘Emakumerik gabe, Eibar, ez litzateke gaur egungoa izango’ liburua aurkeztuko dute hilaren 13an, bari-xakuan. Savina Lafita Sole, Luz Maceira Ochoa eta Zaida Fernandez Perezek idatzitako liburua da eta herriko emakumeek Eibarko industrializazioan egindako ekarpenak batzen ditu.

Portaleko erakusketa gelan egingo da liburuaren aurkezpena eta gai honen inguruko erakusketari hasiera emango zaio. *“Ez da ohiko erakusketa izango”*, Fernandezzen ustez. *“Proiektuan parte hartu duten emakume batzuek prozesua nola bizi izan duten kontatuko dute eta emakumeek egindako hainbat objektu egongo dira ikusgai”*. Erakusketa parte-hartzailea izatea nahi izan dute eta herritarrek erakusketarako materiala eskaini dute: Eibarko industrializazio prozesuarekin loturiko dokumentuak, tresnak, erropak, argazkiak... Erakusketa hilaren 29ra arte egingo da zabalik.



## ANGELES EIZAGAETXEBERRIA SOLOZABAL

Martxoaren 4an hil zen Haron, 71 urterekin

*“Maitasunez gogoratuko zaitugu”*

ZURE AHIZPA, ILOBAK ETA LEHENGUSINAK

# la 46 milioi euroko Udal aurrekontua onartu du Udalbatzak



Astelehen goizean egindako ezohiko bilkuran onartu zuten 2020ko ekitaldirako 45.951.342 euroko aurrekontua, PSE-EE (9) eta Elkarrekin Podemos Eibarren (1) aldeko botoekin eta Eibarko EAJ-PNVren abstentzioarekin (5). Eibarko EH-Bilduk, berriz, aurka bozkatu zuen (4). Ekitaldi honetako aurrekontua 2019koa baino %10 handiagoa izango da, gutxi gorabehera. Egunerako gai-ordenak jasotzen zuen bigarren puntuari jarraituta, 2020ko ordainsariak %2 igotzea onartu zuen aho batez Udalbatzak.

**A**lkatetzaren memorian jasota dagoenez, beste alderdiekin akordioa lortzeko negoziazioa “ez da erraza izan. Ekitaldi honetan zirriborroa 2019ko azaroaren hasieran aurkeztu genuen, aben-

duaren amaierarako onartuko zelakoan. Zorritzarrez, hilabete bateko hasierako epearekin eta Eibarko EH Bildu udal taldeak eskatutako epe luzatuarekin, negoziazioa luzatu egin da denboran, horretarako deituko den Osoko Bilkuran onartuko dela bermatu arte. Espero dut hain negoziazio luzeak aurrekontu hau bermatzeko ez ezik, negoziazio arinagoak bermatuko dituzten etorkizuneko irizpideak ezartzeko ere balio izatea”.

Eibarko EH Bildurekin adostasuna lortzea ezinezkoa izan dela dio alkateak idatzitako memoriari: “Hiru zuzenketa partzial, 6,6 milioi euro baino gehiagoko balio onartezinakoak, proposamena egin duen taldeak berak ere jakinda edukiaren aldetik ezin direla bete, horretarako eskumenik ez dagoelako. Hala ere, uste osoa dut, aurreko ekitaldian bezala, jarrera errealistagoetatik abiatzen badira, negoziazioa ez ezik, akordioa ere posible izango dela datorren urtean”. Horren aurrean, **Gorka Errasti Eibarko EH**

**Bilduren bozeramaileak** “hasieratik adostasuna lortzeko borondate eza” leporatu zion alkateari. Errastiren berbetan, “Udaletik kanpora PSE eta PNV alderdiek daukaten hitzarmenak negoziazioa hasieratik baldintzatu du. Benetan gure premia izanez gero, bestelako jarrerarekin eseriko zineten berba egitera. Hala ere, legegintzaldiak aurrera egin ahal, behin baino gehiagotan bidean topo egin eta elkarrekin gauzak egiteko moduan izatea espero dut”.

Askoz ere azkarragoa eta errazagoa izan da, ordea, Elkarrekin Podemos taldeko ordezkariarekin ados ipintzea. Alkatearen berbetan, “dokumentuan sartu beharreko ekimenak adostea eta kontuei babesa ematea prozesu nahiko motza izan da. Mirabasok eta herritarrek kontzientziatzeko hainbat ekimenek aukera emango diote Elkarrekin-Podemos Eibarri bereak diren hainbat ekimen ekitaldi honetan islatuta ikusteko”. Horren aurrean, **Isabel Fernandez Elkarrekin-Podemos udal taldeko ordezkaria** “lortutako akordioarekin pozik” agertu zen. Esandakoren arabera, “udal honetan gure benetako indarra zein den jakitun gara, horregatik pozik gaude Mirabaso moduko proiektua kontuan hartzea lortu dugulako, nahiz eta gure taldeak sortutakoa ez izan”.

Eta Eibarko EAJ-PNVrekin negoziazio-prozesua “gogorra, luzea eta korapilatsua” izan da, alkatearen arabera. Hala ere, adostutako ekimenek “aurrekontua aberasteko eta haren onarpena bermatzeko” baliagarriak izan direla irizten



EAJ-PNVk lortu duen akordioari esker, 200 aparkaleku berri sortuko dituzte Ubitxan, Jardinetan eta Legarren.



dio. **Jeltzaleen arabera**, “aurrekontua ez da guk egingo genukeena, baina, hala ere, aurrerapauso batzuk ematea lortu dugula pentsatzen dugu”. Sozialistekin egin duten akordioak jasotzen dituen artean, 2020an aparkaleku perimetralak egiteko adostutakoa nabarmendu dute: “1,7 milioi euroko akordiotik, %93,7 inbertsioak dira (1.593.000 euro). Hirigunearen perimetroan (Legarre Gain, Ubitxa eta Jardinetan) aparkalekuak egiteko aurrekontu-akordioa lortu dugu. Helburua auzoetan barne-trafikoa gutxitzea da, horrela, kaleak oinezkoentzat eta ez autoentzat izateko. Horrekin batera, Matsariako pabiloien prezioak jeisteko, milioi erdiko inbertsioa egingo da. Udalak Matsariako pabiloien prezioa merketuko du, garajeak erosita. Enpresak hemen geratzea nahi dugu, enpresa berriak etortzea, ekintzaileen proiektuak hemen sustraitzea. Horretarako, funtsezkoa da lurra eta pabiloien prezio lehiakorrean eskaintzea. Garaje horiek erostea, eskala txikian bada ere, gure industriaren aldeko apustua da”.

Aparkaleku perimetralez gain, “Errebal inguruko merkataritza jarduera bultzatzeko, Errebal eta Ibarkurutze kaleak konponduko dira, koexistentzia gune bilakatuz”. Aurrekontu zuzenketen bidez beste hainbat ekimen jarriko dira abian, besteak beste, baserrietako garraio publikoa, Mercedes Kareaga beka “emakumeek hiriri egindako ekarpena ikusarazteko”, Eibarko kantuen diska bat egingo du Ustekabek eta diruz lagunduko dira arte martzialen Ronin Elkarte eta mahai-jokoen Odisea Elkarte.

### Inbertsio garrantzitsuenak

Ekitaldi honetarako aurreikusituzten inbertsio garrantzitsuenak hirigintza arloan, irisgarritasunean eta eraikuntza esparruan hobekuntzak egitera bideratuko dira. Kopururik handiena, 3.300.000 euroko partida Errebalgo proiektua amaitzeko eta hirirako, aisialdirako, kulturarako eta elkarbizitzarako bilgune estrategiko bat sortzeko erabiliko da.

Gainera, 2.000.000 euro aurreikusituzten dira irisgarritasuna hobetzeko lanetarako (Jardinetan, Ubitxa/San Kristobal, Torrekua/Amaña, Saratsuegi eta Untzaga/Arrate-Bide daude atal honetako lehentasunen agendan) eta beste 1.000.000 euro aurreikusituzten dira hiri-inguruneetan eta asfaltatuetan hobekuntzak egiteko, herritarren eskaeren arabera.

Aipatutako horiekin batera, “aurrekontu parte-hartzaileak finkatzeko, hiriko ikastetxeak hobetzeko, udal lurzoru-ondarea erosteko edo ahalik eta proiekturik onenean lan egiten jarraitzeko” partida irekia mantentzeko inbertsioak nabarmentzen dira. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako konpromisoa betetzera bideratutako inbertsioak gehitu dira, hiriko trenbidearen estaldura burutzeko eta landa-auzoak hobetzeko. Helburu horiek betetzen ahalegintzeko 1.750.000 euro inguru daude.

2.200.000 euro erabiliko dira hirian bizikaltatea bermatzeko eta herritarren zerbitzura jarritako azpiegituren funtzionamendu egokia bermatzeko. Atal horretan daude, besteak beste, sarbide mekanikoak mantentzea eta hiriaren garbitasuna.

Udaleko Osoko Bilkurak larrialdi klimatikoari eta ingurumen-gaiei buruz berriki hartutako konpromisoari erantzunez, ibilgailu elektrikoak erosteko, Led argiak pixkanaka



Errebalgo proiektuak eramango du inbertsioen ataleko zatirik handiena, 3'3 milioi euroko partidarekin.

ordezkatzeko joateko, etxejabeen komunitateetan fatxadak birgaitzeko diru-laguntzetan energia-eraginkortasuneko klausulak sartzeko edo Ingurumenaren Arloko kontu-sailletan eta dagoeneko finkatuta dauden programetan (milioi bat euro inguru) energia-eraginkortasuneko klausulak sartzeko partidak sartu dira.

Horrekin batera, hiria bizikidetzat sustatzeko tresnez hornitzeko, bi milioi euro baino gehiago sartu dituzte aurrekontuan. Horren baitan, Gizarte Zerbitzuetarako, Berritasunerako, Kulturarako, Euskerarako eta Kiroletarako partida espezifikoak aurreikusten dira.

Garapen Ekonomikoaren, Enpleguaren eta Berrikuntzaren Arloak lanean jarraituko du “Eibar gure artean, besteren kontura, industriaren edo zerbitzuetan, beren lan-proiektua garatzeko aukera emango duen hiria izan dadin. Horretarako, enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza-aukerak bilatuko ditu, eta arreta berezia eskainiko die lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak. Horretarako, 3.000.000 eurotik gorako aurrekontua izango dute”.

Eta diru-sarreraren kapituluaren egoerari dagokionez, “ekitaldi honetan 38.326.376 euroko diru-sarreraren aurreikuspena dugu, aurreko ekitaldian baino %15 gehiago”.

### UDAL AURREKONTUAREN GARAPENA

1985	7.112.292	
1986	7.902.707	(%11 gora)
1987	8.508.072	(%7 gora)
1988	11.158.438	(%31 gora)
1989	15.275.146	(%37 gora)
1990	14.488.341	(%5 behera)
1991	15.914.819	(%10 gora)
1992	24.886.155	(%56 gora)
1993	20.513.373	(%18 behera)
1994	22.869.895	(%11 gora)
1995	22.015.288	(%4 behera)
1996	24.553.652	(%12 gora)
1997	21.031.417	(%14 behera)
1998	21.831.397	(%4 gora)
1999	24.596.104	(%13 gora)
2000	24.196.183	(%2 behera)
2001	25.389.417	(%5 gora)
2002	27.276.512	(%7 gora)
2003	26.993.706	(%1 behera)
2005	30.801.926	(%14 gora)
2006	34.755.424	(%13 gora)
2007	37.396.668	(%8 gora)
2008	37.179.219	(%1 behera)
2009	42.243.190	(%14 gora)
2010	43.233.573	(%2 gora)
2011	42.299.867	(%2 behera)
2012	33.917.939	(%20 behera)
2015	37.213.469	(%10 gora)
2016	34.741.592	(%7 behera)
2017	38.109.884	(%10 gora)
2018	37.653.905	(%1 behera)

**Guretxoko skate eskola:****"Skate egiteko ez da baldintza berezirik behar, motibazioa eta gogoia bakarrik"**

Guretxoko skate eskolak skate ikastaroa eskainiko du hilaren 28an, zapatuan, 17:00etatik 19:30era, Ego-gain kalean dagoen Zugasti eskulturaren ondoan. Skatearen munduan murgiltzen hasteko balio dezakeen ikastaroa da, oinarrizko ezagutzak jaso eta patinete gainean lehen trikimailuak egiteko. Martxoaren 16tik 23ra egongo da zabalik izena emateko epea Pegoran edo Udalaren webgunean.

**- Zer egingo duzue ikastaroan?**

Skate munduari buruz zer-bait gehiago erakutsi edo skatean hasteko oinarrizko ezagutzak eskainiko dizkiegu parte-hartzaileei, Guretxoko skate eskolan erabiltzen dugun metodoan oinarrituta.

**- Nori zuzendua egongo da?**

5 urtetik aurrerako neska-mutilei. Skate egiteko ez da baldintza berezirik behar. Motibazioarekin, gogoarekin eta ikasteko jarrerarekin etortzea nahikoa da. Skatea inoiz praktikatu ez baduzu, proba egiteko aukera ederra izango da.

**- Zein da skate egiten ikasteko gakoa?**

Patinete gainean ibiltzeko ezinbestekoa da oreka ondo mantentzea eta skatearen mugimenduari batera doazen jarrerak ondo bereganatzea (kontrapisuak egitea, ondo erortzen jakitea...).

**- Skatean zaila izango da kolperik ez jasotzea, hasieran behintzat, baina nola ekidin daitezke?**

Esku onetan jartzea da garrantzitsuena. Gure eskolara



gero eta jende gehiago etortzen da, euren ikasketa-prozesua modu onean bermatzeko eta beharrezkoak ez diren erorketak ekiditzeko. 13 urte daramatzagu zerbitzu hau arrakastaz ematen. Normalean, kolpeak ez dira larriak izaten. Babesgarriak janzteak asko laguntzen du, baina erortzen jakiteak garrantzi handia du.

**- Skate egiteko toki bereziak egotea komeni da edo edozein tokitan egin daitezke?**

Gero eta skatepark publiko gehiago dago skate egiteko eta, era berean, Guretxoko bezalako leku espezifikoa eta pribatu gehiago dago. Segurtasuna eta aurrerapena bermatzen duten tokiak dira. Gainera, skateparketan ibili ondoren eta nor-

beraren skate maila handiagoa denean kalean ibiltzen zarenean, oztopo ezberdinak aurkitzen dira. Hasterakoan, komenigarria da norbait alboan edukitzea lehenengo pausuetan laguntzeko eta gaizki egiten direnak zuzentzeko. Bestetik, Guretxokon, adibidez, zurezko egiturak ditugunez, min gutxiago hartzen da erortzerakoan. Gero, norberaren maila hobetzen doan neurrian, zementuzko skateparkak ditugu trebezia gehiago hartzeko eta parke publiko batean aurkitu ditzakeen oztopoei nola aurre egin ahal dien ikasteko.

Euskal Herrian, hemengo klima kontuan hartuta, oso lagungarria da Guretxoko bezalako teilatupeko skateparkak edukitzea, euria egiten duen ere praktikatzeko.

**- Nolako skate komunitatea dago Euskal Herrian?**

Euskal Herriko skate komunitatea ona dela esango nuke. Normalean beste toki batzuetako jende asko ikusten da eta gu beste toki batzuetara joaten garenean ezagun asko aurkitzen ditugu. Oso harreman ona dugu skater guztiok.



**Izarra bezala Zeruan  
Behar zaitugu Gogoan  
Ospatzen lagun Artean  
Zure poza gure Bihotzetan**

**LAURA  
MARTINENA  
URIBESALGO**

Gasteiz, 2015-III-6  
V. URTEURRENA

# Euskal Udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute

Aste honetan, astelehenean zabaldu da Euskal Udalekuetan izena emateko epea eta Eibarko zein Euskal Herri osoko txoko ezberdinetako ume eta gazteek hilaren 16ra arte izango dute izena emateko aukera. Arduradunen berbetan, "aurtengoa 55. edizioa izango da eta inoiz baino indartsuago gatoz uda bete abentura euskeraz zure eskura jartzeko".

Euskeraz bultzatzeko helburuarekin sortutako udalekuak dira Euskal Udalekuak: "Lan boluntarioa eginez, Euskal Herri osotik gure artera datozen ume eta gazteei udan ere euskeraz bizitzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen diegu. Horrez gain, jolasa oinarri hartuta, balore ezberdinak lantzen ditugu: feminismoa, natura, parte-hartzea...".

Gaur egun hiru etxetan, Abaigarren, Bernedon eta Goñin burutzen dira udalekuak. Arduradunek 11 txanda osatu dituzte guztira, "egun, adin tarte eta etxe ezberdinetan. Animatu, kuxkuxeatu gure web orrian (<http://udalekuak.eus/>) eta zatoz Euskal Udalekuetara! Bizi ezazu uda euskeratik eta euskeraz!".



Informazio gehiago nahi izanez gero, telefonoz deitu daiteke, 678011708 eta 945107314 telefono zenbakietara (goizeko 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara) edo, bestela, udalekuak@udalekuak.eus helbidera idatzi.

**Euskal Udalekuak**

Goñi	Bernedo	Abaigar
<b>1. TXANDA</b> 10 egun, 140 plaza Uztailaren 8tik 17ra 12-15an jaiok 170€	<b>1. TXANDA</b> 15 egun, 100 plaza Uztailaren 10tik 15ra 08-09an jaiok 255€	<b>3. TXANDA</b> 9 egun, 100 plaza Uztailaren 31tik Abuztuaren 8ra 12-15an jaiok 155€
<b>2. TXANDA</b> 14 egun, 100 plaza Uztailaren 17tik 30ra 08-09an jaiok 245€	<b>2A. TXANDA</b> 9 egun, 100 plaza Uztailaren 10tik 23ra 10-11an jaiok 155€	<b>4. TXANDA</b> 10 egun, 80 plaza Abuztuaren 8tik 23ra 05-06-07an jaiok 275€
<b>3. TXANDA</b> 10 egun, 140 plaza Uztailaren 30tik Abuztuaren 8ra 10-11an jaiok 175€	<b>2B. TXANDA</b> 9 egun, 100 plaza Uztailaren 23tik 31ra 10-11an jaiok 155€	<b>2. TXANDA</b> 15 egun, 85 plaza Uztailaren 15tik 29ra 04-07an jaiok 255€
		<b>3. TXANDA</b> 15 egun, 85 plaza Uztailaren 29tik Abuztuaren 12ra 08-09an jaiok 255€

**Eman izenak:** Martxoaren 28ik aurrera [www.udalekuak.eus](http://www.udalekuak.eus)  
**Informazio gehiagorako:** [udalekuak@udalekuak.eus](mailto:udalekuak@udalekuak.eus) 945107314 eta 678011708  
**Orduetgia:** 10:00-12:00 18:00-20:00  
**Sarean on gaudel:** @euskaludalekuak

**GAZTETXEF**

IZEN EMATEA:  
 MARTXOAREN 3-TIK 15-ERA!  
 5/4 pertsonako taldeak  
 Informazio  
 GEHLAGO GAZTELEKUAN!

ERANDEKUNAKA Tfn: 6888682372 ERANDEKUNAKA gaztetxef

## Gaztetxef lehiaketaren edizio berria jokatu dute Indianokua gaztelekuan

Laster hasiko da Gaztetxef lehiaketaren edizio berria Indianokua gaztelekuan. Parte hartu nahi duten gazteek hiru edo lau lagun elkartu eta taldea osatu beharko dute. Izena emateko epea martxoaren 15ean itxiko dute eta izen-ematea egiteko zein informazio gehiago eskatzeko Indianokua gaztelekura jo daiteke.



## JOSU MIRENA KORTABERRIA ALBIZU

II. urteurrena: 2018-III-4

URAK DAKARRENA URAK DAROA  
 ZUK EMANDAKOA  
 GUREKIN GERATZEN DA



International Tribology Council (ITC) erakundeko kide izendatu duite Tekniker eta, Amaya Igartua, Eibarko zentro teknologian tribologiaren arloan ikertzen 28 urte daramatzan eibartarra, Espainia mailako presidenteorde izendatu du tribologiaren nazioarteko erakundeak. Igartuaren izendapena mugarriz garrantzitsua da Teknikerrentzat eta nazioarte mailan tribologia alorrean erreferentziarako zentroa dela berresten du.

**- Lehenik eta behin, zer da ITC?**

Tribologiaren nazioarteko erakundea da. Tribologia berba Peter Jostek sortu zuen 1966an, eta marruskadura eta higadura lantzen ditu. Gure bizitzako osagarri guztiak higatu egiten dira eta, ondorioz, tribologiak bizitzako arlo guztiak barneratzen ditu. Harriak garraiatzeko gorpildun karroak erabiltzen hasi zirenean, adibidez, tribologiaren kontzeptua erabiltzen hasi ziren (higadura dagoelako eta abar), baina 1966. urtera arte ez zen zientzia bezala erabili.

**- Nola jaso duzu ITCren izendapena?**

Berri atsegina da. Urteak daramatzat ITCekin elkarlanean, baina tribologiaren inguruan 28 urtez lan egin ondoren polita da norberaren lana aintzat hartzen dutela ikustea.

**- Zein izango da zure funtzioa ITCren barruan?**

ITCk Munduko Tribologia Kongresuak antolatzen ditu eta antolakuntza-batzordean egongo naiz. Bestetik, tribologiaren inguruko formakuntza zereginetan ere arituko naiz.

**- Izendapen honek nolako garrantzia du Teknikerrentzat?**

Azken batean, izendapena Teknikerrentzat da, Tekniker barik ez nintzateke ezer



**AMAYA  
 IGARTUA**  
 (ikerlaria):

**“Gure seme-alabei eta ilobei mundu hobeaz uztea da erronka nagusia”**



**DAMIANA ETA LIDIA  
 MANDIOLA ANSUATEGI**

**(I. urteurrena: 2019-III-2)**

*“Jada urtebete gure artetik joan zinetela. Hutsune nabaria utzi arren, betirako gure bihotzean egongo zarete.*

*Eskerrik asko erakutsitako guztiagatik” – ETXEKOAK –*



izango, organizazioaren beste kide bat besterik ez naiz. Teknikerrek tribologiaren aldeko apostua egin zuen 1982an. Lubrifikazioarekin hasi zen, estaldurekin jarraitu zuen gero eta saiakuntza-banku tribologikoekin orain. 25 tribometro ditugu eta horretako asko guk garatu ditugu. Beraz, Tekniker Europako bost tribologia zentro onenen artean dago gaur egun.

**- Zer ikertzen duzue saiakuntza-bankuetan?**

Maila ezberdinetako entseguak eta simulazioak egiten ditugu, elementuen osagai tribologikoa aplikazio errealean nola portatzen den ikusteko. Gure helburua higadura-mekanismo erreala laborategian errepikatzea da eta, gero, zein konponbide materialek irauten duen gehien ikusten dugu. Gainera, frikzioa eta kontsumoa neurtzen da baita ere. Errodamenduak, engranajeak eta bestelako elementu mekaniko batzuk neurtzeaz gain, aldaka-protesien eta motorren higadura-mekanismoak aztertzen ditugu, besteak beste.

**- Elikagaien inguruan ere ibili zara lanean. Zertan zehazki?**

Teknikerreko tribologia unitateko arduraduna izan naiz 10 urtez, baina gai gehiago landu ditut. Gaur egun Teknikerreko materialen inizatibaren koordinatzailea eta Europako Materialen Plataformako (EUMAT) idazkarikidea naiz. Materialekin zerkusia duten proiektuen jardueretan parte hartzen eta Biosmart proiektua koordinatzen dut, elikagaien bizitza luzatzeko asmoz martxan jarritako egitasmoa. Paketeak ahalik eta gehien murrizteko eta birziklagarriak edo biodegradagarriak izan daitezen ikerketak egiteko joera dago materialen eremuan. Eta ez hori bakarrik, pakete barruan janariak ahalik eta denbora gehien egotea aztertzen dihardugu, ahalik eta elikagai gutxien desegiteko helburuarekin. Horretarako, Biosmart packaging izeneko paketeak garatu ditugu eta honen bitartez ontzian dauden gasak monitorizatu daitezke, pakete barruan dauden elikagaien bizitza luzatuz.

**“Tekniker Europako bost tribologia zentro onenen artean dago gaur egun”**

**- Orain dela 28 urte hasi zinen tribologia ikertzen. Urte hauetan asko aldatu dira ikertzeko moduak, baldintzak, baliabideak, eta abar?**

Bai, lankideok ordenagailu bera erabiltzen genuen sasoiak gogoratzen dut, adibidez. Hasieran Teknikerrek Armeria Eskolan zuen egoitza eta eboluzionatzen joan zen, instalakuntza hobekitu lortu arte. Inbertsioak egin dira gure lana hobetu ahal izateko eta zentroan egindakoa industriari transmititu diogu. Ezagutza sortu eta industriari transmititzea izan da gure lana. Zentzu horretan, tribologiaren inguruan, Teknikerrek bi konpainia sortu ditu: Lubrication Management eta Atten2. Enpresa biek konponbide tribologikoak ematen dituzte. Batak, mantenu gastuak murrizteko; eta besteak, erabiltzen diren osagarrien higadura monitorizatuz, noiz hondatuko diren aurreikusteko.

**- Herriarentzat nolako garrantzia du Tekniker bezalako zentro teknologikoak Eibarren egoteak?**

Luxua da, zoragarria. Eibartarrok harro egon beharko ginatke Tekniker bezalako zentro teknologikoa edukitzeagatik. Tribologiaren kasuan, adibidez, Europako bost zentro onenen artean dago eta hori asko da. Baina tribologiaz gain, makinaren erakuntzan, azalen garapenean, big datan edo aplikazio jakin batzuetarako gailu espezifikoaren garapenean diharduten enpresei laguntza eskaintzen zaie. Iñaki Goenaga, Ramon Bueno eta Alex Bengoa zuzendariak lan bikaina egin dute.

**- Teknologiaren munduan bide luze eta arrakastatsua egiten diharduzu, eta ere...**

**“Ondo prestatu behar gara erronka berriei modu arrazionalen erantzuteko”**

**du izan zaitezke mundu horretan hasi nahi duten edo hasi diren emakumeentzat. Zuk bazenuen emakumezko erreferenterik?**

Polita da erreferente izatea. Lanbide horretan hasi nintzenez ez zen hain argi ikusten emakume bat ikerketa-zentrotan lanean hastea. Pertsona moduan prestatzeko egin nuen karrera, ez lan egiteko itxaropenarekin. Hala ere, azkenean posible izan zen, eta gaur egun normala eta ohikoa da emakumeek gizonen maila berean garatzea gure bizitza profesionala, Euskal Herrian batez ere. Oso ondo prestatuta dauden emakumeak daudela uste dut.

**- Zeintzuk dira profesional bezala etorkizunera begira dituzun erronka nagusiak?**


Tribologiari dagokionez, Txinan egin genuen ITCren bilera batean i-Tribomat proiektua abiatzeko ideia garatu genuen. Asmo handiko proiektua da eta Europako ikerketa-zentro asko batuko ditu, informatikak eskaintzen dituen erramintak erabiliz tribometroak sarera igo eta ekipoen edo higaduraren inguruko erabakiak sarean hartzeko. Sarean lan egiteko ahalmena eta tribologia analitikoaren tresnak eskainiko dizkigu i-Tribomatek, une horretan erabiltzen ari diren ekipoen frikzioa eta iraupena aurreikusteko. Bestetik, Biosmart proiektuari dagokionez, janaria ez desegitea da helburua. Gaur egun, elikagaien %40 desegiten da eta oso interesgarria litzateke hainbeste janari alferrik ez galtzea. Ontzi adimentsuen bitartez arrazionalagoak izan gaitezke elikagaien eta baliabideen erabileran. Energiaren erabileran eragin-korrakoak izatea, osagarrien bizitza luzatzea, kontsumo energetikoa murrizteko frikzioa murriztea, CO2 isurpenak murriztea... dira ditugun erronkak. Azken finean, gure seme-alabei eta ilobei mundu hobea uztea da erronka nagusia. Ikasten joan behar dugu, belaunaldi berriek erronka berriak planteatzen dituztelako eta, hemen, ondo prestatu behar gara erronka berriei modu arrazionalen erantzuteko.



**JUAN OSÉS BIENZOBAS**  
(IX. urteurrena: 2011-II-17)  
**MARIA LUISA RUIZ DE EGUINO**  
(III. urteurrena: 2017-III-6)



**“Beterako nire bihotzean”**  
NEREA



## Ipuruako gimnastek Euskal Ligari ekin zioten Espainiako Kopa helburu dutela

Eibarko klubeko gimnasta federatuek, denboraldian bete-betean sartuta, Euskal Ligako lehen fasean hartu zuten parte, beti ere Espainiako txapelketarako txartela lortzeko helburuarekin. Euskal Liga hiru zatitan dago antolatuta: bigarrena martxoan eta maiatzean jokatu da eta horko emaitzen arabera jakingo da zeintzuk hartuko duten parte estatu mailako lehiaketetan. Ipuruako senior taldeak irabazi egin zuen bost pilotekin egindako ariketan, oinarri jubenil taldea bigarren izan zen bost xingola edo zintekin eta oinarri kadete taldea hirugarren izan zen, hori ere bost pilotekin. Hiru taldeek Iruñean jokatu diren Oinarri Kopa eta Espainiakoan parte hartzeko asmoa dute eta hilaren 22an Euskal Ligaren bigarren fasea izango dute zai helburua betetzeko erabakigune. Oinarri mailetakoa Euskadiko txapelketa indibidualean izan zen Haizeder Arguizek podiumera igo zuen, hirugarren postuan.

Bestetik, Zarautzen jokatuak infantil eta alebin mailetakoa txapelketarako lehen fasean, alebinetan San Andres taldea bigarren izan zen eta Iturburu seigarren. Alebin mailan, gainera, Nora Albizur irabazi zuen eta Ane Ibarzabal hirugarren sailkatu zen. Senior taldeak lehiatu ez bazuen ere, maila horretako gimnastek par-



te hartu zuten banakakoan, Nahia Arguizek eta Lur Aranburuk zilarrezkoa eta brontzezkoa irabazteko, hurrenez hurren. Ipuruakoen hurrengo erronkak Gasteiz Hiria (hilaren 15ean) eta Donosti Torneoa (21ean) izango dira.

### Gernikan ere maila onean

Ipuruako gimnasta federatu guztiek Bizkaiko herri horretan jokatu den Macarena Milla torneoan izan ziren azken asteburuan eta hor ere podiumean izan ziren bi talde: oinarri jubenil taldea bigarren sailkatu zen eta oinarri kadete taldeak hirugarren amaitu zuen

## 51. Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa hasiko da bihar Elgoibarren



laz urrezko ezteiak ospatu eta gero, aurtengo Gipuzkoako txapelketa Elgoibarko Aiestia auzoko San Migel bolatokian abiatuko da bihar. Hitzordua, beti bezala, 17:00etan izango da eta ordubete aurretik bola probatzeko aukera izango dute. Oraingoan Leintz-Gatzagako bolatokiak ere hartuko du parte lehenengoz; bolatoki berriekin hamar izango dira aurtengo lehiaketaren lekuko. Finala Azkoitiko Floreaga auzoko

bolatokian jokatu da maiatzaren 30ean; ohikoari jarraituz, hor erabakiko dira izan daitezkeen parreko edo berdinketak. Eta, betiko bidetik, handik aste-betera Lehendakari Txapelketa jokatu da goizeko 11:00etan, oraingoan Soraluzeko San Andres bolatokian, ondoren Txurruka jatetxean bazkaldu eta, urtero moduan, bi bolari omendu eta sariak banatzeko.

Honakoa izango da txapelketa egutegia: martxoaren 7an

Elgoibarko San Miguelen, 14an Azpeitiko Garmendipen, 28an Eibarko Asola Berrin, apirilaren 4an Elgoibarko San Pedron, 18an Itziarko Lasturren, 25ean Leintz-Gatzagan, maiatzaren 9an Elgetan, 16an Aretxabaletan, 23an Bergarako San Joxepen, 30ean finalak Azkoitiko Floreagan eta ekainaren 6an Lehendakari Saria Soraluzeko San Andresen. Edozer gertatu ere, Garmendipekoa izango da ordezkoko bolatokia.

## Pello Osoro maila bikainean Errumaniako Europakoan ere

Gure herriko triatloilariak ohituta gaitu parte hartzen duen proba guztietan aurreko postuetan ikustera, proba edozein mailakoa dela ere. Oraingoan bide beretik jo du eta Errumaniko Cheilei Gradistei herrian jokatuak neguko triatloiko Europako txapelketan zazpigarren amaitu du, lan bikaina egin eta irabazlearengandik bi minutura helmugaratuta. Eibartarrak 54 minutu eta erdi behar izan zituen Pavel Andreev errusiarrak 52 minutu eta 21 segundoko denborarekin irabazitako proban.



## Eibar Igerixaneko hiru ordezkari Euskal Herriko infantil txapelketan

Irungo Azken Portu kiroldegian jokatuak txapelketa horretan izan ziren Miren Galdos, Malen Beobide eta Maddi Maguregi eta, hiruiek lan ederra egin ez euren markak hobetu bazituzten ere, Maguregi nabarmendu zen bereziki, hiru domina bereganatuta: urrezkoa 100 tximeletan, zilarra 400 estiloetan eta brontzea 200 estiloetan.



## Herriko emakumezkoen taldeak debut bikaina egin zuen Mungiaiko duatloian

Jaz Eibar Triatloi Taldeak lan bikaina egin zuen Mungian jokaturako duatloiko euskal zirkuitoko bigarren proban. Horrez gain, herriko emakumezkoekin osaturako taldearen debuta izan zen proba horretan (lehen aldiz historian) eta ezin hobeto erantzun zuen, taldekako sailkapenean bigarren izan baitzen irabazlearengandik 8 segundora. Aitziber Urkiola hirugarren izan zen eta podiumera igo zuen Eibarko taldera bueltatzen zen egunean; ez zen Jaz-eko bakarria podiumera igotzen, Roberto Gartzia onena izan zelako beterano 2 mailan. Kristina Ruiz, Maialen Zubizarreta eta Izaskun Azpiri 20 lehenen artean sailkatu ziren; gizonezkoen artean, bestalde, Galder Hernandez 23. izan zen, 23 urtetik azpikoaren artean hirugarren, eta Enrique Guruzetak 51. postuan amaitu zuen.

Eibarko duatloia ere ate joka dugu, datorren asteko zapatuan jokaturako baita. Gainera, euskal zirkuitoaren barruan orain arte egon ez den modalitatea izango da berritasun: talde mistoen lehiaketa. Horko irabazlea erabakitzeko talde bakoitzeko gizonezko eta emakumezko bi onenen denborak batuko dira. Antolatzaileak boluntario bila dabilta proba behar den moduan aurrera ateratzeko.



## Eibar Rugby Taldea maila galtzeko zorian da

Aurreko zapatuan hil ala biziko partidua zuen Ohorezko B Mailako gizonezkoen taldeak eta ez zuen asmatu irabazten berarekin berdinduta zegoen Escor Gaztediri. Amaieran markagailuak erakusten zuen 7-17 emaitzak gauzak ezin zailago jarri dizkio Gaston Ibarburuk zuzentzen duen taldeari mailari eusteko: denboraldia amaitzeko falta diren bi partiduak irabaztera behartuta daude eta, horrez gain, behe alde horretan daudenek ezin dute punturik bereganatu. Bihar Oviedo azken sailkatuari egingo diote bisita, aurretik behintzat partidua aurrera ateratzeko aukera eskaintzen duen norgehiagokan. Helburua betetzeko itxaropenak hor daude, beraz. Gizonezkoen bigarren taldeak ere galdu egin zuen, Funes Rugby-ren zelaietan, emaitza hobe lortzea espero zutenean. Ohorezko B Mailako emakumeen martxa, hori bai geraezina: azken partiduan 72-0 nagusitu zitzaizkien BUC Barcelonakoei Unben eta orain eurekin sailkapenaren goian dauden Les Abellesen kontra jokaturako dute. Finalerdiak zain izango dituzte jarraian.



## Eibar-Mallorca garrantzi handiko neurketa bihar eguerdirako

Aurreko zapatuan ordu berean lortutako garaipenaren ondoren, 1. Mailako taldeak jaitsiera postuak bost puntura urrundu ditu. Jokaldia biribiltzeko aukeraren aurrean daude orain Mendibarren mutilak eta, bihar 13:00etan hasiko den partidua irabazita, jaitsiera markatzen duen Mallorca zortzi puntura laga dezakete. Hiru egun geroago, martitzenean, orain dela aste batzuk atzeratu zuten partidua jokaturako da eta Realak izango dugu Ipuruan, 20:00etatik aurrera.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

EIBAR - Mallorca (bihar, 13:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila

EIBAR (atsedena)

#### 3. Maila

VITORIA - Santurtzi (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Leioako Emakum. - EIBAR B (etzi, 18:00)

#### Ohorezko Erregional Maila

Mutriku - EIBAR URKO (bihar, 17:00)

#### 1. Erregionala

Bergara - URKI (bihar, 17:00)

EIBARTARRAK - Zestoa (bihar, 18:00)

#### Emakumezkoen Gorengo Maila

Allerru - EIBAR (bihar, 17:30)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

EIBAR - Real Sociedad (etzi, 12:30)

#### Euskal Liga

Indartsu - EIBAR B (bihar, 11:30)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

EIBAR (atsedena)

### FOBALL ZALETUA

Azkena Adahi - Los Paisanos (bihar, 09:00)

La Jara - Illunpe Areto (bihar, 09:00)

Chic - Durango (bihar, 10:30)

Bar Txoko - JMR Erreformak (bihar, 12:00)

Garajes Garcia - Feredu (etzi, 09:00)

Ipur Sagardotegia - Slow XOK (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

Dominicos - SOMOS (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

Munttarpe - MECALBE (bihar, 16:30)

#### Gipuzkoako 1. Maila

EIBAR - Aritzatalde (bihar, 16:45)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

R. Oviedo - AVIA (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Ohorezko B Maila

Les Abelles - AVIA (etzi, 11:00)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

AVIA - Zurrut (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

Larraina - URBAT (etzi, 13:30)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - Bidasoa (gaur, 21:45)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

## Mendiko materialaren azoka eta film emanaldiak Mendi Jardunaldietan

Bihar 10:00etatik 13:00etara T. Etxebarriako zeharkalean bigarren eskuko mendiko materialaren azoka egingo da, "egoera onean dagoen hainbat material erosi, saldu eta trukatzeko, tartean mendia, eskalada, eskia, mendiko bizikleta eta abentura kiroletakoa". Naturaren bueltan kokatzen diren aktibitateetarako erabilgarria izan daitekeen materialaz dihardute antolatzaileek: "Eskiak, botak, pioletak, kranpoiak, motxilak, osagarriak, liburuak... Erabilitako objektuen berrabilera indartu nahi dugu horrela, kontsumo arduratsuagoa bultzatu eta publiko zabalenera aukera erraztu esperientzia honetan parte hartzeko". Interesatuak eurak arduratu beharko dira produktuari prezioa jarri eta saltzeaz.

### Lau film bi egunetan

Bestalde, datorren asteko astelehenean eta martitzenean, egun bietan 19:00etan hasita, Bilbao Mendifilm Festivalerako pelikula emanaldiak izango dira ikusgai Coliseoan, 5 euroko prezioan. Lehen egunean, 9an, 13 minutuko "Nebula" eta 100 minutuko "Manaslu"



eskainiko dira. Kanadako Jay Trusler-en lana film labur onena izan zen Bilbon eta Austriako Gerald Salminarenak Ikusle-en Saria jaso zuen. Film laburrean Reuben Krabbe argazkilaria grabatuko dute bi urtetan mamitutako plana gauzatzen duen bitartean, "gau garbian eskiatzailea harrapatu nahi duen objektibotik, izarrarteko espazioa atzean duela". Luzeak Hans Kammerlande historiako alpinista puntakoenetakoaren lorpen eta galera handienak ekarriko dizkigu, "bere buruari galdetzen dion bitartean ea nolatan dagoen bizirik



Bihar goizean mendiko materialaren azoka egingo dute Depor aurrean.



bere lagunik onenak mendian hil direnean". Kammerlandek Manaslu igo zuen 2017an Stephan Keck lagunarekin eta eskietan osatu zuten jaitsiera, bide berri bat zabalduz.

Bigarren egunean, 10ean, Bilboko jaialdian Sari Nagusia jaso zuen "Treeline" estatubatuarra eta epaimahaiaren saria irabazi zuen 80 minutuko "Cholitas" espainiarra eskainiko dituzte. Lehenengoak, zuhaitzak ardatz dituela, Columbia Britainiarrak, Japonia eta Nevadako basoetatik bidaiatu du: "Maisulana da, gizateria eta naturaren arteko lotura

indartzeko beharra erakusten duen mezuarekin". Jordan Manleyk zuzentzen duen lanak "geure burua eta inguruan duguna babestu beharra" azpimarratzen du. Jaime Murciegok eta Pablo Ibaburuk zuzendutako "Cholitasen", bestalde, Boliviako bost emakume indigenek egindako espedizioa kontatzen da, Ameriketako mendirik garaiena igotzeko "askatasun eta ahalduz erakusle gisa". Gona tradizionalak jantzita eskalatuko dute, "tradizioa zaintzeko eta ama naturarekin harremanetan jartzeko bidea erabiliz".

## Emakumezkoen Euskal Herriko ligaren lidergoa jokoan gaur Orbean

Senior mailako emakumezkoen Urdabaiton waterpolo taldeak sailkapenaren gorenean berarekin berdinduta dagoen Irungo Bidasoa izango du aurkari gaur 21:45ean, euren arteko berdinketa apurtu eta lider bakarra izateko itxaropenarekin. Aurreko jardunaldian berriz ere ametsak errealitate bihurtu eta ondo nagusitu zen Eibarko taldea Nafarroako Uni-




bertsitate Publikoan WP 9802 taldeari 6-11 irabazita. Urbateko gizonzkoen senior mailako taldea ez zen gutxiago izan eta lehen postuan jarraitzen du Donostian Fortuna 7-14 gainditu ondoren, "hori Basterrika kapitaina eta Mikel Recio baja izan zirela". Eibartarrak nagusi izan ziren azken jardunaldiko partidu guztietan eta, horrela, jubenilen taldea 11-10 gailendu zitzaion Leioari, Espainiako txapelketara joateko borrokan jarraitzeko, eta infantil mistoko taldeak 14-10 irabazi zion nesken Askartza taldeari. Beteranoak ez dira gutxiago eta, Master mailan, 5-16 garaipen argia lortu zuen Sestao eta CD Bilbaoren arteko konbinatuaren aurrean; emaitza horrekin liga irabazteko zorian daude. Aipatutako emaitzekin normala bihurtu da azkenaldian eibartarrak hainbat selekzioekin parte har-



tzea: Mikel Basterrika, Eneko eta Jon Treviño eta Alaitz Ibarrola Euskal Herriko selekzio absolutuarekin dihardute Txekian jokatuko den Europako B txapelketa prestatzen eta Paul Alberdi, Alazne Ziarsolo eta Ander Treviño infantil mailakoan daude. Miren Urizar, bere aldetik, Espainiakoarekin dihardu hilabete honetan Hungarian jokatuko beharreko partidua prestatzen.





## **Ekhi Belar:**

### **“Erakundeek aurrera begira dituzten erronkei buruz egingo dugu berba”**



10. urteurrena betetzen duen honetan, berritasun ugari eskaniko ditu datorren astean, martxoaren 11an, Portalean egingo den Euskeraren Transmisioa mintegiak. Aurreko edizioetan erakundeetako ordezkariak sarrera laburra egin izan diote mintegiari. Aurten, parte-hartze aktiboagoa izango dute, eta amaieran tertuliatxo bat egingo dute euren artean. Solasaldian izango dira Estibaliz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria eta Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Berdintasunerako zuzendaria. Eta eurekin, Eibartik, Patxi Lejardi Udaleko kultura eta euskara zinegotzia eta Junkal Txurruka euskara teknikaria egongo dira. Mahai-ingurua Ekhi Belar ...eta kitto!-ko kazetariak dinamizatuko du.

**- Nola aurreikusten duzu aurtengo mintegia?**

Aurten dinamikoagoa eta erlaxatua izango da. Parte-hartze handia izango du: mahai bakoitzean gonbidatu desberdinak izango dira, ikuspuntu anitzekin, eta zentzu horretan, oso aberatsa izango dela uste dut. Egitarauan oso izen potentek daude.

**- Jaurlaritzan, Diputazioan eta Eibarko udalean euskararen alorrean lanean diharduten agintariak bilduko ditu aurten mintegiak azken mahai-inguruan. Dinamizatzailea izango zara. Zertaz egingo da berba?**

Egun horretan euskararen alorreko aditu askok egingo dute berba, eta, amaieran, erakunde publiko desberdinetako ordezkarien txanda izango da. Azken finean, erakundeetako ordezkariak daukate ahalmena hizkuntza politikak martxan jartzeko. Proiektuak eta ideiak oso ondo daude, baina gero baliabideak behar dira horiek martxan jartzeko. Aurrera begira buruan dituzten estrategiak eta erronkak zeintzuk diren galdetuko diegu, banakakoak eta elkarren artekoak. Herri mailako elkarteekin dituzten harremanei buruz hitz egingo dugu. Euskalgintzaren arloa ez da bakarrik politikarien kontua, besteona ere bada, eta

besteekin harreman horiek nola gauzatzen diren azaltzeko eskatuko diegu. Patxi Lejardi eta Junkal Txurruka Eibarko kasuan zentratuko dira.

**- Euskaraldian agerian geratu da zein garrantzitsua den erakunde, herritar, elkarte eta enpresen arteko saretze eta elkarlan hori...**

Helburua berbera izanda, denok bide beretik joateak nolako garrantzia duen argi ikusi da. Euskaraldiaren antolaketa bera lorpen izugarria izan da: kolore askotako herritarrak, elkarteak, enpresak, erakundeak... elkarrekin lanean jartzea sekulakoa izan da.



## **Estitxu Garai:**

### **“Euskera nola gustatuko litzaiekeen ikustea galdetuko diet Zaloa Urain, Jon Maia eta Porrotx-i”**

**“Euskeraren marka eta herrigintza” solasaldia gidatuko du Estitxu Garai EHUKo publizitate-irakasleak, eta berarekin egongo dira Jon Maia bertsolaria, Joxe Mari Agirretxe “Porrotx” pailazoa eta hezitzailea, eta Zaloa Urain musikari eta irakasle eibartarra.**

**- Esparru desberdinetako profesionalak izango dituzu ondoan. Zeintzuk izango dira zeuen mahai-inguruaren gakoak?**

Oso egokiak dira hirurak gai horri buruz hitz egiteko, euren jardunaren bidez euskararen marka den hori eraikitzen laguntzen dutelako. Eurekin kontrastatu nahi dut nola ikusten duten gaur egun euskeraren marka.

**- Zertaz ari gara markaz hitz egiten dugunean?**

Euskeraren markari buruz hitz egiten dugunean euskerari lotuta burura datozkigun asoziazioen gainean dihardugu. Hau da, euskera zeri lotuta dagoen. Eta

eurei euskera nola gustatuko litzaiekeen ikustea galdetuko diet. Hau da, zein izan beharko litzatekeen bultzatu beharko genukeen marka (hau da, euskara esatean zer etorri beharko litzazigukeen burura).


**- Euskalgintzako egitasmo desberdinetan lanean ibili zara eta UPV-EHUn “euskararen marka” ikerketa gidatzen diharduzu. Nola doa?**

Makroinkesta baten emaitzak jaso berri ditugu, eta orain marka-txostena izango dena idazten ari gara. Ezagutu nahi dugu, gure pertzepzioetatik haratago, zeintzuk diren orokorrean euskerari lotutako asoziazio horiek. Dauzkagun ahul-

guneak eta indarguneak ikusi eta hori nola landu daitekeen euskararen marka hobetzeko.

**- Eibarren egon zinen AKEBAIren hasieran. Nolako izan zen esperientzia?**

Luxua izan zen hor egotea, guk landu nahi dugun ikuspegi komunikatibo hori hasieratik presente egon zelako proiektuan. Hasieratik oso proposamen estrategikoa egin zen. Zein da gaur egun euskalgintzak duen irudia, eta zer irudi transmititu nahi dugu? Norengana iritsi nahi dugu? Proiektuetan hasieratik guk planteatzen dugun marka-planteamendua txertatzen denean gauzak oso ondo ateratzen dira.



**FERNANDO SOLANA:** "Eibar, erronka bertikala".

## “Itsaspeko bihotzak” erakusketa eta familientzat prestatutako saioa

Gaurtik hasita hilaren 16ra arte hartuko du Portaleak “Itsaspeko bihotzak” erakusketa pedagogikoa. Ekin-tza hau Udaleko Berdintasun sailak eta Udal Liburutegiak elkarlanean antolatzen dute eta bosgarrenez ekarri dute Eibarrera. Arduradunen berbetan, “areto literario honen genero berdintasunaren gaia lantzen du, euskal haur literaturaren bitartez. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzat prestatzen dugu eta herriko ikastetxe guztiek hartuko dute parte”.

Galtzagorri elkartekoak arduratzen dira erakusketaren inguruko azalpenekin eta, bisita-

tan joaten diren taldeentzat hezkidetzaren ardatz duen ibilbide artistiko-pedagogikoa bat diseinatu dute: “Ibilbideak haur literatura hartzen du barne bereziki, eta baita bestelako arte adierazpenak ere (ilustrazioa, jostungintza, artisautza, ikus-entzunezkoak...)”.

Liburutegitik azaldu dutenez, “Lehen Hezkuntzako 4. mailako 13 taldek eman dute izena. Horiez gain, Eibar BHI-ko ZIG gela eta familientzako saio bat eskainiko ditugu”.

Familientzat egingo den saio hori astelehenean (martxoaren 9an) izango da, 17:30ean eta oraindik toki batzuk badaude. Saioa 5-8 urte



bitarteko haurrentzako eta gurasoentzako egokitua dago, “eta urazpiko ibilbidea giro goxoan egiteko proposamena da. Hasiera batean, ibilbide proposamen berbera jarraituko dugu, baina gune bakoitza (eta bertako eduki eta albumak) adin tarte horietara egokituak daude. Bereziki, al-

bumen aurkezpen eta ipuin kontaketen zentratuko gara, eta amaieran altxorrera iristean denbora izango dute liburuak lasai begiratzeko”. Izen-ematea doan da eta Liburutegian bertan, telefonoz (943 70 84 37) edo emailaz (liburutegia@eibar.eus) egin daiteke.

## Coliseo antzokiak “Emakume Oihua” hartuko du domekan

Emakume Oihua Poesia eta Arte Nazioarteko Jaialdia Dominikar Errepublikan jaio zen orain dela hamarkada bat eta gaur egun hogeitahamar herrialde baino gehiagotan ospatzen da martxoan, MPI Nazioarteko Emakume Poeta Mugimenduak deituta. Ekitaldi horietan emakumearen aurkako biolentziaren aurka dauden genero guztietako artistek hartzen dute parte eta, horren harira, Eiba-

rren poesia errezitaldia antolatu dute domekarako, 12:30ean Coliseoan. Emanaldian talde zein bakarlarri ugari hartuko dute parte: J.B. Gisasola Musika Eskolako eta Untzagako abesbatzek, Itzamna poesia tailerrak, Ermuko Lobiano errezitazio tailerrak, Alberto Luis Egiak (pianoa), Pilar Agirregomezkortaren balletak eta La Red Teatrok, besteak beste. Sarrerak 3 euro balio du.



## Dantza eta genero-identitateari buruzko tesia defendatuko du Oier Araolazak

Datorren martxoaren 20an euskal dantza eta genero-identitatea aztertuz egin duen doktore-tesiaren aurkezpena eta defentsa egingo ditu Oier Araolaza antropologo eta dantzari eibartarrak UPV/EHUren Leioako kanpusean. Egun batzuk barru aurkeztuko duen tesian, besteak beste, euskal dantzetan indarrean izan diren genero-identitateak eta rol estereotipatuak noiz eta nola erai-ki ziren ikertu ditu.





**JOKIN OREGI**  
(antzerki zuzendaria)

**- Orain dela hilabete eta erdi estreinatzen zenuten 'Ikimilikiliklik'. Nola bizi dituzue hasierako momentuak?**

Zirrara handiarekin. Antzezlan bat eskaintzeak erditzearekin zerikusia du nolabait. Emakumeek barkatuko didate, agian konparaketa ez delako egokiena, baina ulertzen dela uste dut. Hustutze bat dago eta biluztu egiten zara. Zure onenak eman nahi dituzu eta krisi post-traumatiko bat egon daiteke, bat-batean zure haurra besteen eskuetan uzten duzulako eta ez dakizulako zer irudituko zaien eta nola erabiliko duten. Jendeak zuk sortutakoa gustora hartzea nahi duzu, ikusleekin emozio batzuk eta mundua ikusteko modu bat partekatzen dituzulako. Gustoko badute, munduan bakarrik ez zaudela sentitzen duzu, zuk bezala sentitzen duen jendea dagoela. Gustatzen bazaie, babestuago sentitzen zara; baina ez bazaie gustatzen, ahul.

**- Marie De Jonghekin egindako antzezlanetan ez dituzue barbarik era-**

## "Belaunaldi ezberdinek gauza berarekin gozatzea garrantzitsua da"

Marie De Jongh antzerki konpainiak 'Ikimilikiliklik' taularatuko du bihar, 17:00etan, Coliseoan. Jokin Oregi soraluzetarrak zuzentzen duen antzezlan da eta Ekhiaren istorioa kontatzen du. Ekhi txikitik sorginei beldurra zien, baina azkenean sorgin bihurtzen da. Haur eta helduei zuzenduriko lana da, Marie De Jonghek hain ondo lantzen duen erregistroan kontatuta.

**bili orain arte, baina oraingoan bai. Zergatik?**

Ez diogu ezeri uko egiten. Gauzak modu interesgarrienean kontatzen saiatzen gara eta kasu honetan berbak behar genituen. 'Amour' eta 'Izar' antzezlanetan maskarak erabili genituen eta, orduan, erabilera horren inguruan galdetzen ziguten. Istorioak horrela eskatzen zuen eta hori zen istorioa kontatzeko modurik egokiena. Oraingoan, arrazoi beragatik erabiltzen dugu hitza.

**- Beldurraren hausnarketa egiten da antzezlanean. Nola?**

Asko kostatzen zait antzezlanaren gaia oso garbi zein den esatea, obra batean gai asko jorratzen direlako. 'Ikimilikiliklik' lanean beldurra gai bat da, sorginen inguruko istorioa delako. Ekhi protagonistak esaten du txikitik gauza askori ziela beldurra, batez ere sorginei, baina obran zehar ikusten dugu nola bihurtu zen sorgin. Umeak beldurrez josita daude, baina helduak

ere bai. Azken finean, beldurra gure parte da.

**- Beraz, antzezlan haur eta helduentzako da?**

Haur eta helduentzako obrak egiten saiatzen gara. Ez da erreza, gauza batzuk helduentzat umekeriak izan daitezkelako eta, aldi berean, ulergaitzak umeentzat. Neurria hartzen saiatzen gara eta ondo egiten dugula esan digute. Guretzat garrantzitsua da belaunaldi ezberdinek gauza berarekin eta aldi berean gozatzea.

**- Zuretzat berezia izango da Eibarko Antzerki Jardunaldietan aritzea?**

Niretzat beti da berezia jaialdi honetan parte hartzea. 16 urte nituenean, Elgoibarko institutuan nengoela, Narruzko Zezenek antolatutako idazlan lehiaketa irabazi nuen eta gaia antzerkia zen. Saso hartan ez nuen antzerkiarekin inolako loturarik, antzerki gutxi ikusi nuen orduko. Juan Ortegak askotan komentatu du brometan, "Jokin gurekin hasi zen" (barreak).

## Ustekabe txarangak bideoa grabatu du Txontan

San Juan bezperako kalejiran hartutako irudiek bideoa grabatu dute Ustekabe txarangakoek Txonta auzoan. Sofia Machin eta Nuria Robleño eibartarrek egin dute bideoa eta, txarangakoek diotenez, "lehen irudian argi laga nahi genuen nongoak garen" eta horregatik aukeratu dute Txonta. Euren berbetan, "Eibarren hain ohikoa izan den etxe eta tailerren arteko nahasketa hori erakusten du eta asko gustatu zaigu gure bideo korporatiborako, gure izaera islatzen duelako: gazteak gara, kulturagintzan dihardugu, eta tailerren hiriko seme-alabak gara". Bideorako erabili duten musikak ere auzoarekin lotura dauka, kale horretan entsaiatzen zuen EH Sukarraren txarangarako bertsioa aukeratu dute eta. Ustekabek 20 urte beteiko ditu aurten eta, bideoaz gain, Codesyntaxek diseinatu-tako webgunea (<http://www.ustekabe.com>) estreinatu dute.





## Turandot opera eskainiko dute bihar Coliseoan

Bihar arratsaldeko 19:45ean 2018an Madrilgo Teatro Realean grabatutako "Turandot" opera proiektatuko dute Coliseoan. Bi orduko iraupena izango duen Giacomo Pucciniren lanaren bertsio digital difirituan bi sopranok dituzte paper garrantzitsuenak: Irene Theorin suediarra eta Oksana Dyka ukrainiarra. Eurekin izango dira baita Yolanda Auyanet eta Miren Urbieta-Vega sopranoak eta Gregory Kunde, Roberto Aronica eta Jae-Hyoeung Kim tenoreak ere. Turandot izan zen, bereziki, opera zinemara bideratu zuen aitzindaria musika dramaturgi-koaren barruan.



## Udaberriko kontzertuko argazkiak Youtuben ikus daitezke

Urteroko martxan, Eibarko Txirindularien Elkarteak lasterketen denboraldia hasteko Udaberriko Kontzertua egin zuen Coliseo antzokian, otsailaren 16an, Eibarko Cielito Musika Bandak egunerako bereziki prestatutako musikarekin. Elkartetik aditzera eman dutenez, antzokiko sarreran argazkiak egiten ibili ziren eta askok galdetu diete argazki horiek non ikus daitezkeen: "Gure esker on guztiarekin erantzunez, argazkiak gure Youtubeko kanalean (Radio Vuelta CCE-ETE) ikus daitezke. Ea ba ikusten zareten argazkiotan eta, bitartean, harira datoren musika polita entzun dezakezue".



## Paneuritmia dantza-meditazio ikastaroa

Martxoaren 14 eta 15ean dantza-meditazio ikastaroa emango dute Ipurua kiroldegian Paneuritmia dantza meditazio elkartekok. Antolatzaileen berbetan, "paneuritmia edo arimaren dantza naturarekin batasuna bilatzen duen ariketa da, oreka, poza, baretasuna, indartzea eta bakea ematen duen mugimenduzko meditazioa. Udaberrian eta udan Euskal Herriko mendietan egingo dugu dantza". Ikastaroa doan izango da, baina ikasle kopurua mugatua. Interesa duenak Whatsapp bidez baieztatu dezake asistentzia (655148934) edo, bestela, encuentrodepaneuritmia2020@gmail.com helbidera idatzita.



Mirari Martiarena

Bakean Dagoena Bakean utzi  
binakako bakarrizketak  
Umorea, generoa eta euskara

Idoia Torregerai

## Umorezko binakako bakarrizketak eskainiko dituzte egunean

Udal Euskaltegiaren 35. urteurrena ospatzeko prestatu duten egitarauaren baitan, datorren egunean, 18:00etan, Idoia Torregerai eta Mirari Martiarenaren binakako bakarrizketek gozatzeko aukera egongo da Portaleko areto nagusian. "Bakean dagoena bakean utzi" goiburuko saioan umoreak, generoak eta euskerak bat egingo dute eta ikustera joaten direnek ondo baino hobeto pasatuko dute, zalantza barik. Sarrera doan izango da.

## 43. Antzerki Jardunaldiak

*Martxoak 7, zapatua*

**Coliseoan**  
**17:00etan**

### "Ikimilikiliklik"

**CÍA. MARIE DE JONGH / Antzezleak:** Ana Meabe, Aiora Sedano, Maitane Sarralde, Juana Palacios, Leire Omeñaka.  
**Zuzendaria:** Jokin Oregi / **Iraupena:** 50 minutu

Ikuskizuna Oregi konpainiako zuzendariak idatzitako Ikimilikiliklik ipuinean oinarritzen da eta keinu gabeko ikuskizuna aurkezten du, hitza elementu dramatiko gisa erabiliz beldurrari buruzko hausnarketa partekatzeko. Mikel Laboa kantautorearen abestian denok imaginatzen genuen sorgin bat konjurua erreztatzen bere edabe miragarria prestatzen duen bitartean; ba proiektu berri honen protagonista sorginei beldurra izatetik bera sorgina izatera pasatuko da.



*Martxoak 11, eguaztena*

**Coliseoan**  
**20:30ean**

### "El rey Lear"

**ATALAYA / Antzezleak:** Carmen Gallardo, Joaquin Galán, Maria Sanz, Raul Vera, Elena Aliaga, Silvia Garzon  
**Zuzendaria:** Ricardo Iniesta / **Iraupena:** 105 minutu

Kritikoen eta ikusleen aurrean izandako arrakastari lagundu diote, batetik, mahaien bidez egindako eszenografia original eta xumeak, hainbat egoera sortzeko, eta bestetik, aldaketa eszenikoekin batera doan abesbatzaren indarrak. Baina ikuskizunaren aipagarriena antzezleek egiten duten interpretazioa da; horien artean, goraiatzekoa da Gallardok Lear zaharraren rolean egiten duen interpretazio-dantza paregabea, mina, haserre eta umorea erabilia.

*Martxoak 13, barixakua*

**Coliseoan**  
**20:30ean**

### "Orquesta de malabares"

**CÍA. PISTACATRO - CIELITO MUSIKA BANDA / Antzezleak:** Arturo Cobas, Dulce Duca, Dani Fausto, Aitor Garuz /  
**Zuzendaria:** Pablo Reboleiro / **Iraupena:** 75 minutu

Musikaren eta zirkuaren arteko harreman honetan sei malabaristak eta musika banda batek jarduten dute taula gainean. Kontzertuaren erdian malabaristak aireko ballet horren dantzariak dira. Klarineteak, saxoak eta tronpetak koadro espressionista bateko margolariak dira, eta boleak, mazoak eta uztaiek musikak eta zirkuak transmititzen dituzten sentimenduak eta emozioak marrazten dituzte airean. Cielito bandak lehen aldiz hartuko du parte Jardunaldiotan.



eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea



**Sagardo Eguna**  
**ERMUAN**

Bihar, zapatua VII. Sagardo Eguna ospatuko da Ermuan. 6 euroren truke edalontzia eta pintxoak salduko dute, eta sagardoa eguerdian, 12:30etik 14:30era, eta arratsaldean, 18:30etik amaitu arte banatuko da. Gauean musika egongo da, Parrapas eta Indabak taldeen kontzertuekin eta DJ Lekaimerekin.



**Stock Feria**  
**ELGOIBARREN**

Stock Feriaren ekitaldi berri bat antolatu du Txankakua Merkatarik Elkartekak biharko. Txankakua elkarteko hamabost merkatarik eskaintza eta mauka bereziak ipiniko dituzte martxoaren 7an, Maalako parkean, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Txankakuako maskotak ere ibiliko dira azoka gunean, piruletak eta globoak oparitzen, 11:00etik 14:30etara bitartean, hain justu ere. Ez dira baina Txankakuakoek egingo dituzten opari bakarrak izango. Ohi duten legez, 14:00etan 600 euro zozkatuko dituzte erosketa txeketan.

**hildakoak**

- Rosa Arranz Andres. 92 urte. 2020-II-28.
- Pilar Moya Lazaro. 94 urte. 2020-II-28.
- Carmen Yebra Garcia-Abad. 87 urte. 2020-II-28.
- Manolo Martinez Perez. 78 urte. 2020-III-1.
- Ignacia Manzisidor Urbieta. 93 urte. 2020-III-2.
- Jose Sarasua Zabala. 90 urte. 2020-III-3.

**jaiotakoak**

- Ander Alegria De la Hoz. 2020-II-27.
- Sara Rodriguez Vitores. 2020-II-27.
- Paule Barbero Martinez. 2020-II-29.
- Uxue Alkorta Magunazelaia. 2020-III-3.

**farmaziak**

- Barixakua 6**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 7**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Domeka 8**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Astelehena 9**  
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 10**  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 11**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguena 12**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Barixakua 13**  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2020AN-  
**Barandela** (Z. Agirre, 4)

**telefono**  
**jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

**SUDOKUA**

AURREKOAREN  
 EMAITZA

3	5	4	9	6	1	7	2	8
7	2	9	3	5	8	6	4	1
1	6	8	4	2	7	5	9	3
4	8	7	2	1	6	9	3	5
2	9	5	8	7	3	1	6	4
6	1	3	5	9	4	8	7	2
9	3	1	7	4	5	2	8	6
5	4	2	6	8	9	3	1	7
8	7	6	1	3	2	4	5	9

6	8	7	9		1	3		
3	2		7	6				
				1		6	5	
	7						3	
	1	6		4				
				7	9		1	2
		5	2		6	7	4	8

**Barixakua 6****M8**

**16:00.** "Bildutako feminismoak" partida. Andretxean.

**18:00.** Feminismoa gorpuztu: Dantza eta Flashmob kolektiboa. Untzagan.

**21:00.** Bertso afaria. Arrate Kultur Elkartearen.

**ZALDIBAR ARGITU ORAINI**

**19:00.** Lore-eskaintza. Eitzagan.

**19:00/21:00.** Bandera salmenta. Untzagan.

**ZINE FORUMA**

**19:00.** "Colette" pelikularen inguruan. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Pagatxa elkartearen eskutik. Doan. Portalean.

**Zapatua 7****AZOKA**

**10:00/13:00.** Bigarren eskuko mendiko material azoka. Depor parean.

**HAUR PARKEA**

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-aren bonoarekin). Astelena frontoian.

**ZALDIBAR ARGITU ORAINI**

**12:00/14:00.** Bandera salmenta. Untzagan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**17:00.** "Ikimilikiliklik" (Marie de Jongh). 5 euro. Coliseoan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

**OPERA**

**19:45.** "Turandot", Giacomo Pucciniren operaren (Madrilgo Teatro Realean 2018an grabatutakoa) proiektzioa. Coliseoan.

**Domeka 8****M8**

**09:00.** Elkargunearen irekiera.

**11:00.** Mintzodromoa.

**13:00.** Emakumeak\* dantzara! Ondoren, poteo girotua.

**15:00.** Bazkari autogestionatua.

**16:30.** Bazkaloste musikatua.

**18:00.** Manifa mistoa. Amaieran, ekitaldia.

Antolatzailea: Eibarko Martxoaren 8ko Plataforma Feminista. Untzagan.

**POESIA**

**12:30.** "Emakume Oihua" Poesia eta Arte Nazioarteko Jaialdia. 3 euro. Coliseoan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

**PATINAK IPURUAN**

**17:45.** Ipurua kiroldegian.

**Astlehena 9****ELKARRETARATZEA**

**12:00.** Jubilatu eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

**ERAKUSKETA DIDAKTIKOA**

**17:30.** "Itsaspeko bihotzak aretoa". Familientzat saioa. Juan San Martin liburutegian.

**GURASOAK MARTXAN**

**18:00.** "Jolasaren garrantzia haurtzaroan" gurasoentzat hitzaldia (euskeraz). Portalean.

**BIDEO-FORUMA**

**18:30.** Emakumeen Istorioak: Virginia Woolf. Pagatxa elkartearen eskutik. Doan. Portalean.

**MENDI JARDUNALDIAK**

**19:00.** Mendi Tour proiektzioa: "Nebula" eta "Manaslu". 5 euro. Coliseoan.

**Martitzena 10****IKASTEN**

**10:00.** "Presioaren ondoren depresioa" hitzaldia, Sanchez doktorearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**IKASTEN**

**16:00/19:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**MENDI JARDUNALDIAK**

**19:00.** Mendi Tour proiektzioa: "Treeline" eta "Cholitas". 5 euro. Coliseoan.

**ZALDIBAR ARGITU ORAINI**

**18:00.** Zaldibar Argitu Orain! herri-plataformaren bilera irekia. Arrate Kultur Elkartearen.

**19:30.** Kontzentrazioa. Ipuruan (zelai parean).

**Eguaztena 11****MINTEGIA**

**09:00/14:30.** Euskeraren Transmisioaren X. Mintegia. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Portalean (areto nagusian).

**GURASOAK MARTXAN**

**18:00.** "La sexualidad y la pornografía en la adolescencia" gurasoentzat hitzaldia (gaztelera). Portalean.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20:30.** "El Rey Lear" (Atalaya Teatro, Sevilla). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

**Eguena 12****IKASTEN**

**10:00.** "Aurreikusitako borondateak. Bizi testamentua" hitzaldia, Mabel Marijuanen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**ZALDIBAR ARGITU ORAINI**

**12:30.** Manifestazioa (herri mailakoa), Untzagatik hasita.

**18:30.** Manifestazioa (bateratua).

**KAFE TERTULIA**

**17:00.** "Helduaroko egoera fisikoa". Dinamizatzailea: Pili Arin. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Sarrera doan. Portalean (ikastaro gelan, 3. solairuan).

**BAKARRIZKETA**

**18:00.** "Bakean dagoena bakean utzi", Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren binakako bakarrizketak (Udal Euskaltegiaren 35. urteurrena). Doan. Portalean.

**ODOL-EMATEA**

**18:00/20:00.** Odol-emaileentzat odola emateko saioa. Anbulatorioan.

**KALEETAN KANTUZ**

**18:00.** Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatu etxean.  
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**Erakusketak****Martxoaren 8ra arte:**

- "JABIER VILLARREALI OMENALDIA" kolektiboa (*Portalea*)
- FAUSTO MORGADOren margolanak (*Untzagako jubilatu etxea*)
- "HILEKOA(K)" (*Topaleku*)

**Martxoaren 13ra arte:**

- "ITSASPEKO BIHOTZAK" areto literarioa (*Portalea*)
- JAUME MILLANen argazkiak (II) (*Portalea taberna*)
- UZTARGI KLIK-en argazkiak (*Depor taberna*)



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, AIORA, gure famosa, haraiñegun 11 urte egin zenduazena. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, IBAI!!! Etzi gure printzeak 2 urte beteko ditte-eta. Musu potoluak famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!!



Zorionak, MARKEL, domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Musu erraldoia famelixa guztiaren partez. Aupa, txapeldun!!!



Zorionak, JARE, eguaztenian 4 urte egin zenduazena-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Adur zure nebaren partez.



Zorionak, MALEN Gisasola, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IXABA, gaur 5 urte betetzen dozuz-eta. Txintxua izan eta ondo pasa. Familixaren eta, batez be, loarren partez.



Zorionak, ELIANA, astelehenian urtiak beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IGOTZ!!! Atzo 7 urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE!! Aitxitxa, amama, gurasuak eta Axular-en partez. 5 urte dagoeneko!



Zorionak, ANE!!!, gaur 10 urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, LUCIA eta MARTIN, hillaren 11n 4 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, ANDER, otsailaren 27tik gurekin zagozen-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, zure anaixa JULENen partez.



Zorionak, MARTXEL eta ENEKO, atzo urtiak bete zenduezen-eta!!! Segi holako jatorrak!!! Aupa Amañatarrak!!!

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
7an: 22:30 (2 Aretoa)  
8an: 20:00

**"El plan"**

Zuzendaria: Polo Menarguez

**(2 ARETOAN)**  
7an: 19:45 (1 Aretoa), 22:30 (1 Aretoa)  
8an: 17:00, 20:00  
9an: 20:30

**"El doble más quince"**

Zuzendaria: Mikel Rueda

**(ANTZOKIAN)**  
7an: 17:00 (1), 19:45, 22:30  
8an: 17:00 (1 Aretoa), 20:00  
9an: 20:30 (1 Aretoa)

**"Especiales"**

Zuzendaria: Eric Toledano

**(ANTZOKIAN)**  
7an: 17:00 (2 Aretoa)  
8an: 17:00

**"Boonie Bears"**

Zuzendaria: Leon Ding



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere 4 **ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 2 logelarekin. Tel. 660-047305.
- Etxea hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-337083.
- Pisua alokatzen da Kantabrian Aste Santuan. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. 2 garaje plaza: bat kanpoan eta bestea barruan. Urbanizazioak igerilekua eta paddle pista ditu. Hainbat hondartza 20 minutura autoz. Santander ordu erdira. Inguru lasaia. Zenbait hondartzetatik gertu. 75 euro eguneko. Tel. 617-272634.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-907807.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 652-032117.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 631-881161.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urkin. 22 m<sup>2</sup>. Musika taldeen entseguetarako prestatua (guztiz isolatua). Komunarekin. 150 euro hilean. Tel. 679-843282.
- Garajea hartuko nuke alokairuan Urki, Txalxa Zelai edo P. Etxebarria inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Lokal argitsua alokagai Jardirieta kalean. Gazteentzat edo musika-taldeentzat aproposa. 140 m<sup>2</sup>. Etxebizitzi ez eraikinean. Tel. 656-756485.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-776998.
- Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 643-972119.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-721980.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 10:00etatik 14:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 634-621390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 640-742618.
- Sendagile kubatarra eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eusko Jaurilaritzako ziurtagiriarekin. Tel. 688-863044.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile moduan eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 643-929554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 602-378091.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuetan. Tel. 688-724060.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 3 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-712075.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 640-895039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 696-802587.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Ziurtagiriak eguneratuta eta erreferentziak. Tel. 699-587132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-842219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (07:00etatik 08:30era eta 18:30etik 22:30era). Baita asteburuetan ere. Tel. 660-542155.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauz ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 641-840425.
- Gizona eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, saltzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 625-997599.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 632-337083.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-296098.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Asteburuetan barne. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-098381.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 641-840396.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 5 urteko esperientzia. Tel. 642-550705.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Orduka. Tel. 631-907807.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-734873.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauz ere. Esperientzia. Tel. 602-888008.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsaldean eta asteburuetan. Tel. 612-223075.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 10 urteko esperientzia. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 602-884309.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 612-201719.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 657-209119.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 643-398596.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 632-237151.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Tel. 631-868165.

## 4.2. Langile bila

- Haginetarako higienista edo laguntzaile behar da. Berehala lanean hasteko. Bidali curriculum: hortz.klinika.06@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfil-etarako prestakuntza: IVAP, HABE... Umeen-tzako eskolako errefortzua. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia opari. Tel. 667-549101.
- Berbalagun talde bat osatu nahi dugu ingelesez berba egiteko. Horretarako, amahizkuntza ingelese duen norbait behar dugu; trukean euskera/erdera beharko balu, gu prest laguntzeko. Tel. 628-780910.
- Auto gainean jartzeko kutxa salgai. Evospace 400s etxekoa. Tel. 678-075299.



Informaticando

## KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA  
EIBAR, ELGOIBAR ETA DURANGON

943 15 06 22

WWW.INFORMATICANDO.EUS



EZ GALDU AUKERA  
**50 PANTAILA**  
+ ZINEMA

...eta kitto!-ren

itzulpen

zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelerara,  
gazteleratik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.

- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.



elkartea@etakitto.eus

# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)